

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko urriaren 21a / 733. zenbakia

HIRIGINTZA / Etxebizitzak, Uribarrin

Uribarrin 189 etxebizitza eraikitzeke behin betiko proiektua bukatzen dabilta

UBANE MADERA


Udala aurrerapausoak ematen dabil, Uribarrin 189 etxebizitza eraikitzeke egitasmoa gauzatzeko. Etxebizitza horietatik 145 libreak izango dira eta 44 babes ofizialekoak. Uribarri ingurua goitik behera eraldatuko da Hirigintzako planifikazio horrekin.

Uribarriko etxebizitza horiek eraikitzeke, aldi baterako enpresa-elkartea sortu dute GEDI SA eta Construcciones SUKIA SA enpresek: UTE Uribarri. Enpresa-elkarte horretatik jakinarazi digutenez, arkitektoak (Bidekrutzeta-IFAMeko etxebizitzaren egile berak), Uribarriko etxebizitzaren gaineko behin betiko proiektua bukatzen dabilta.

Halaber, gaineratu digute egitasmoaren ezaugarririk garrantzitsuenak zehaztuta dituztela Udalak onartutako Barne Erreformako Egitasmo Berezian. Orain, Konpentsazio Batzordea osatzen dabilta.

ZAZPI BLOKE

Zehaztu dute zazpi bloke etxe eraikiko dituztela Uribarrin. Ia 28.000 metro koadroko gunea dute horretarako, Jokin Zaitegi ikastolatik hasi eta Gomestio baserrirainoko lur zatian. Zabaleran, berriz, Erguin auzotik Garaiarainoko tar-



URIBARRI ENPRESA-ELKARTEA

Irudiak erakusten du zela geratuko den Uribarri auzoa etxebizitzak eraiki eta gero.

tea okupatuko dute etxeek.

Blokeak hiru ilaratan eraikiko dituzte. Behetik gora hasita, Uribarriko elizaren ondoan etxebizitza bloke bat eraikiko dute. Horren atzean beste hiru, eta Gomestio baserriaren aurreko aldean beste hiru. Blokeak bata bestearekin

lotzeko, berriz, eskailerak egingo dituzte, blokeen erdiko aldean. Eta era berean, ilaren artean, bi kale sortuko dituzte: Udalpe kalearen luzapena bata eta Erguin kalearen luzapena, besta. Biak hala biak Garaia Berrikuntza Guneraino iritsiko dira.

ETXEEN EZAUGARRIAK

Lehen esandako moduan, eraikiko dituzten 189 etxebizitzetatik, 145 libreak izango dira eta gainerako 44ak babes ofizialekoak.

Oro har, etxe gehienek izango dute garajea, sotoa, beheko solairua, beste hiru solairu eta tei-

latu azpiko solairua. Uribarri enpresa-elkartekoek emandako xehetasunen arabera, "bataz beste 115 metro koadro izango dituzte, bi eta hiru logelako etxebizitzak izango dira eta terraza zabalak izango dituzte, hegoaldera begira".

APARKALEKUAK

Bestalde, aparkalekuak ere sortuko dituzte, etxe berrietako bizi-lagunendako. 543 aparkaleku aurrekusi dituzte, hiru plaza etxebizitzako. Hala, 450 bat aparkaleku etxeen azpiko aldean bertan eraikiko dituzte. Gainontzeko 93 aparkalekuak blokeen arteko kaleetan sortzea aurrekusi dute.

BESTELAKO ALDAKETAK

Horrez gainera, oinezkoei begira ere egingo dituzte berrikuntzak: "asmoa da eliza ingurua edertu eta bertan plaza edo egoteko leku bat eraikitzea eta baita umeak jolasean ibiltzeko gunea bat ere".

Era berean, esandako guztia eraiki ahal izateko, gaur egun inguru hartan dauden zenbait eraikin bota egin beharko dituzte; hain zuzen ere, hiru eranskin bota egingo dituzte.

Bestalde, eta uribarritarren eskaera onartuz, Uribarriko elizarako eskailera eta eskailera ondoko ermita bere horretan utziko dituzte; horrez gainera, "elizkizun egunetan auto sarrera ahalbideko da".

Udalaren errekurtsioa ontzat emango du Gipuzkoako Foru Aldundiak

UBANE MADERA

Polmetasaren orubean eraiki beharreko etxeak direla-eta jarri zuen Udalak errekurtsioa Diputazioan. Kontua da, Udalak Egitamu Orokorren aldaketa tramitatu zue-nean, Diputazioak zenbait esparru onartu barik utzi zituela, tartean, Polmetasako etxeen proiektua. Besteak beste, eraiki behar diren etxebizitzaren arteko espazio librengatik ez zuen onartu Diputazioak proiektua, haren ustez, Uda-

lak proposatutako lekuan horiek sortzea ez zelako posible.

Udalak errekurritu egin zuen hori, eta orain, Foru Aldundiko bozeramaile Koldo Azkoitiak jakinarazi digu Diputazioak Udalaren errekurtsioa onartzeko asmoa duela, baldin eta Udalak espazio libre horiek beste non-bait ezartzen baditu.

PROIEKTU TXALOGARRIA

Beraz, badirudi Polmetasako proiektuak aurrera egingo duela.

Are gehiago, Azkoitiak esan digu Diputazioak Arrasateko Udalaren ekimen hori "txalotu" egiten duela "ahalegina egiten dabilelako erdigunean geratu diren enpresei irtenbidea ematen eta gainera, lanpostuak Arrasaten geratzea bermatzen duelako". Gaineratu digu txalogarria dela, baita ere, legeak ezarritakoa baino babes ofizialeko etxe gehiago eraiki behar dituztelako: "Legeak zehazten du %20 izatea babes ofizialeko etxebizitzak eta %30 eraikiko dituzte".



GOIATZ ARANA

Argazkiak erakusten du Polmetasa lantegia, San Andres auzoan.

Udaltzaingoa profesionalizatzea, helburu garrantzitsua Udalarendako

UBANE MADERA

Azken urteotan Arrasateko Udaltzaingoa eraldaketa handiak izan ditu: udaltzain kopurua dezente handitu da eta ibarrean bakarria da 24 orduko zerbitzua betetzen duela. Orain, gainera, Zerbitzuen Gutuna lantzen dabilta. Gehiago jakin guran, Inazio Lakuntza alkatearengana jo dugu.

Gaur egun, 26 udaltzain daude Arrasaten eta oraingo, horixe izango da behin betiko kopurua. "Postu guztiak beteta daude, eta gainera orain dabilta egiten ikastaro espezifiko bat Arkauten. Zortzi udaltzaini falta zitzairen ikastaroa egitea; haiek eta orain sartu diren lau udaltzain berriak dabilta ikastaroan. Seiko bi taldetan banatuta, orain lehenengo taldea dabil Arkauten; urtarrilean izango da bigarrenaren txanda. Udaltzainen trebakuntza-prozesuan, funtzionario izateko azkeneko pausoa da hori".

Udaltzainen %50-edo Arrasatekoak dira, gainerakoak ibarretik etorritakoak edo apurtxo bat urrunagokoak: "Arrasatetik kostalderainoko herrietakoak dira. Batzuen iritzi, hobe da kanpokoak izatea; izan ere, herriko udaltzainendako zailagoa izaten da herrikerideei isunak ipintzea edo zer-bait oker egin dutela esatea".

24 ORDUKO ZERBITZUA

Txandaka lan egiten dute udaltzainek, 24 orduz. Ibarrean bakarrik dira 24 orduko zerbitzua ematen. 2002ko irailean hasi ziren. "Gaueko txanda behar da gurea bezalako herrietan. Oso balorazio ona egiten dugu".

Gaueko arazo nagusien gainean, berriz, zera kontatu digu alkateak: "Batzuetan zirkulazio arazoak sortzen dira: jaiak eta alkohola nahasten direnean... Tratu txarrak gertatzen dira, udaltzainak epailearen erabakiak bete-arazten ibiltzen dira (gizonak emakumearekiko distantzia jakin bat gorde behar duela zaintzen...); bere buruaz beste egiten dutenen kasuak badira, zoritxarrez; *boteiloak* jaietan, eta burukominik



Arrasateko udaltzain bat, herriko kaleak zaintzen.

MIKEL LUPIAÑEZ

*Zerbitzuen
Gutunaren bidez
Udaltzaingoaren
zeregina zehaztu
nahi dute*

handiena: herriko altzarien apurketa". Noiz edo noiz lapurretak izaten direla ere esan digu, baina azkenaldian ez dela halakorik izan.

ZERBITZUEN GUTUNA

Halaber, Inazio Lakuntzak jakinarazi digunez, Arkauteko ikastaroaz gainera, Udaltzaingoa beste lan berezi bat egiten ere badaibil: Zerbitzuen Gutuna. "Udaltzaingoari gauza asko egiteko eskatzen diote; Zerbitzuen Gutunaren bitartez, Udaltzaingoaren zeregina zehaztu gura

*Zerbitzua
profesionalizatu
gura dute, oraingo
beharrei erantzun
egokia emateko*

dugu, konpetentziak; zein izango den Udaltzaingoa eman beharreko zerbitzua eta herritarrek ere jakin dezaten zer eska diezaioketen Udaltzaingoari".

Udaltzaingoa profesionalizatzea oso inportantea dela aditzera eman digu alkateak: "Horretarako hezkuntza berezia behar da; lehen zirkulazio arazoak ziren nagusi; orain, berriz, tratu txarrak... gertatzen dira, polizia judicial lanak egiten dituzte, herriko ordena zaindu egin behar da... Hori guztia lantzen gabiltza".

ESKren eskutik, lantegia, bi hitzaldi eta antzerkia

U.M.

Datorren egunean, hilaren 27an, hasi eta azaroaren 5era arte, zapatua, Jardunaldiak antolatu ditu ESK sindikatuak. Lau ekitaldi egingo dituzte, oro har generoarekin eta berdintasunarekin lotutako gaiak.

Hala, urriaren 27an, *Viva las novias* hitzaldia egingo du Donostiako Plazandreek emakumeen elkarteko Asun Urbietak. 19:00etan hasiko da, Emakume Txokoan. Bestelakoan artean, bikote homosexualen gainean berba egingo du eta norbanako eskubideen gainean.

Hurrengo egunean, berriz, Joxemari Carrere ipuin kontalari eta antzezleak *Gizon ustelgaitza* antzezlan egingo du. Politikan izaten den ustelkeria aztertuko du. 19:30ean hasiko da saioa, Ema-

kumeen Txokoan. Euskarazkoa izango da.

BI DOKTORE BERBA EGITERA

Astebete geroago, berriz, azaroaren 3an, eguna, EHUKo doktore Mari Luz Estebanek *De la obligación de cuidar al derecho a que nos cuiden* hitzaldia egingo du. Antropologian doktorea da Esteban. Aztertuko du, besteak beste, zailtasunak dituztenen zainketa, zainketa publiko eta pribatua zela artikulatu... Hitzaldia 19:00etan hasiko da, Emakume Txokoan.

Eta hilaren 5ean, beste doktore bat etorriko da, kasu honetan, lantegi bat egitera. *Por un uso no sexista del lenguaje* izenburua du. 10:30etik 14:00etara landuko du gai hori Valentziako Casa de la Donako filologo Teresa Meanak.

Ekitaldietarako sarrera doan da, baina tailerrerako izena ematea komeni da: 943 79 04 15 (Malen).



Jardunaldien gainean ESK sindikatuak argitaratu dituen esku-orriak.



Indarkeria salatze gaitzespena

Oraingo astean hil duten Aintzane Garai bakoarraren heriotza Arrasaten ere salatu zuten. Emakumeen Kontrako Indarkeria Salatze Plataformak deituta, zenbait herritarrek kale agerraldia egin zuten eguazten iluntzean, 26 urteko gaztearen heriotza biolentoarengatik protesta egiteko. Halakoren bat gertatzen den guztietan protesta egingo dutela ere esan zuten. U.M.

LABUR

'Emakumeen Ahotsak Mugarik Gabe' bihar

Emakume Txokoak ikasturteari ongiatorria egingo dio bihar, zapatua, ekitaldi berezi batekin. Deiar taldea gonbidatu dute eta hark *Emakumeen Ahotsak Mugarik Gabe* ekitaldia egingo du, 19:00etan, Herriko Plazan. Hainbat dantza, poesia, musika eta kultura nahastu eta ekitaldi artistikoa egingo dute. Herri-tar guztiak daude gonbidatuta.

Etxeak errentan jartzeko programa

Etxejabereren batek etxea errentan ipini nahi badu, Udalera jo dezake. Han, Bizigune programaren bitartez, merkatura aterako dute etxea. Zerbitzu hori erabiltzeko, udaletxera joan beharra dago, edozein egunetan. Jakinarazi digutenez, Udalak dagoeneko 29 etxebizitza atera ditu merkatura programa horren bitartez.

Bihar, zapatua, EHNA tramitatuko dute

Monterronen izango dira EHNA tramitatze datuak-eta hartzen. 11:00etatik 13:00etara egingo dute hori. Honakoak eraman behar dira: errolda agiria (udaletxean eskatzekoa), agiri tamainako hiru argazki (koloredunak, berriak eta hondo zuria dutenak) eta 15 euro. Gero, han eskaera-orria bete beharko da.

Presoen aldeko topagunea sortu dute Arrasaten: Portaloira

Honako helburua du Portaloira topaguneak: "Euskal presoak euskal herriratzeko dinamikaren inguruan, preso eta iheslarietako prozesu politikoan partehartzeko duten eskubidearen bermatzea". Halaber, bide horretan lan egitea nahi duen edozeini dei egiten die topagunean parte hartzera.

Joan den zapatuan aurkeztu zuten Portaloira izeneko topagunea, Portaloian aurkeztu ere. Prentsurrekoaren bidez helarazi zituzten talde horren helburuak. Oro har, presoen estatus politikoa eskatzen du topagune horrek: "Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa da, beraz gatazka horren ondorioz preso eta ihesean dauden herritarrek, preso eta iheslari politikoak dira. Gatazkarik gabe ez legoke ez preso ezta iheslari politikorik ere".

KARTZELA POLITIKA AMAITU BEHAR

Horrekin lotuta, presoen partehartzeko eskubidea aldarrikatu gura dute: "Gatazkaren konponbidean sortzen diren eztabaida eta erabaki guneetan partehartze zuzena izan behar dutela aldarrikatzen dugu (...) Gatazkaren konponbidean urratsak eman nahi badira, preso eta iheslarien estatus politikoa onartu eta euskal presoen sakanaketa, isolamendua eta seni-



Portaloira topaguneko zenbait kide, zapatuko prentsurrekoan.

deen istripu eta heriotzak gauzatu dituen kartzela politika amaitu behar da".

TOPAGUNE IREKIA

Halaber, helburu horiekin bat egiten duen edozeini dei egiten die Portaloira topagunean parte hartzeko: "Aldarrikapen hauen

inguruan datozen hilabeteetan hainbat ekimen burutuko ditugu eta arrasatearrak gonbidatzeaz gain, animatu egiten ditugu edozein proposamen izanez gero, guregana hurbildu eta gurekin batera lanean hasteko. Helburu hauek betetzeko denok baikara beharrezkoak".



Berdintasuna aldarrikatzeko

Joan den astelehenean, hilak 17, bukatu zen Burkina Fason (Afrika) Emakumeen Mundu Martxa. Ekimen horrekin bat eginez eta emakumeen eskubideak aldarrikatzeko, Arizmendiko Heziketa Zikloko zenbait ikaslek kale agerraldia egin zuten astelehen goizean Herriko Plazan. Haiek ere berdintasunean oinarritutako mundua aldarrikatu zuten. /U.M.

Etxe zaharrak botatzen, berriei lekua egiteko

U.M.

Oraingo honetan, Muxibar biribilguneko Arrixan etxearen txanda izan da. Astelehenean eraitsi zuten, haren lekuan beste etxe bat eraikitzeko. Hain zuzen ere, 18 etxebizitza eraikiko dituzte.

Astelehenean hasi eta bukatu zituzten Arrixan etxea eraisteko lanak. Hurrengo egunetan hondakinak eramaten ibili dira. Eta dagoeneko orubea gertu utzi dute, han eraikiko duten etxe berriarendako.

ERAIKITZEN HASTEKO BAIMENA

Hain zuzen ere, Udaletik jakinarazi digutenez, 18 etxebizitza eraikiko dituzte. Honako banaketa izango du etxe horrek: behe-solairua, solairu artekoa, lau solairu eta ganbara (teillatuepea).

Halaber, Udaletik jakinarazi digutenez, enpresa eraikitzaileak dagoeneko badu udal baimena etxe berria eraikitzen hasteko.

'ARRIXAN' ETXEA

Mende hasierakoa zen Arrixan, 1931-32koa, hain justu ere. Alejandro Berriotxoak eraiki zuen. Halaxe kontatu digu haren iloba Elvira Berriotxoak: "Osaba batekin lanean ibili zen eta hark bazekien etxeak eraikitzen".

Etxe osoa zurezkoa zela kontatu digu, hormak kenduta: "Astelehenean esan ziguten etxearen lau hormak oso harri onarekin egindakoak zirela".

Berriotxo-Muñoa familia bizi izan da Arrixan-en, Uribarriko Arrixan baserrikoak ziren: "Ama zen jaiotzez baserri hartakoa, aita Elorriotik etorri zen".

LEHEN ZARUGALDE, ORAIN BIZKAIA

Bestalde, etxea eraiki zutenean, Zarugalde kalearen barruan kokatu zuten, 26. zenbakian: "Bizkairako errepidea aurretik pasatzen zen; eta akaso, lehenago baita Gasteizera joatekoa ere, baina horrekin ez naiz akordatzen".

Geroago, Bizkaia etorbidearen barruan kokatu zuten etxe hura, bigarren zenbakian.

Enpresa eraikitzaileak dagoeneko badu udal baimena etxe berria eraikitzeko

Uribarriko Arrixan baserriko Berriotxo-Muñoa bizi izan da 'Arrixan' etxean



Hondeatzeko makina, Arrixan etxea botatzen, astelehenean.

PUB HAIZEA

arrasate

Gorka ilepaindegia peluqueria

Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferreñas 35 - 943 77 13 78
ARRASATE
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25
ARETXABALETA

arbolapeta

arrasate

beinke

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 21**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- ZAPATUA, 22**
Español. Araba etor. 14 943 79 18 65
- DOMEKA, 23**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 24**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- MARTITZENA, 25**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 26**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUENA, 27**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 28**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelenehena
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelenehena
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRIAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 meza nagusia 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaraz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Santa Marinako eliza
Uribarri parrokia	San Isidro
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Domeka 12:00 (elebiduna)	

OHARRAK

'POBREZIA ZERO' KANPAINA
Astelenean, hilaren 24an, Udaleko hainbat teknikari eta zinegotzik kanpaina horren berri emango dute, manifestu bat irakurriko dute eta balkoietan jartzeko pankartak banatuko dituzte. 19:00etan izango da ekitaldi hori.

EHNA EGITEKO AUKERA
Bihar, zapatua, eta baita azaroaren 26an ere EHNA egiteko aukera izango da Monterronen, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Interesatuak hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro eraman beharko dituzte.

BERTSOLARI TXAPELKETA
Etzi, domeka, bertsolari txapelketako final-laurdena jokatuko dute Amaia Udal Antzokian, 17:00etan. Honako bertsolariak esku hartuko dute: Aitor Sarriegik, Estitxu Arotzenak, Nahikari Gabilondok, Arkaitz Goikoetxeak, Arkaitz Estiballesek eta Iñaki Zelaiak.

3.60 ARETOKO KONTZERTUAK
Gaur, egubakoitza, Arrasateko Gose taldeak diskoa aurkeztuko du 23:00etan. Eta bihar, zapatua, Discipulos de Dionisos eta Black Diamond taldeek kontzertua egingo dute ordu berean.

AEDrenAGENDA

'ARRAUTZA DELIKATUAK'
Gaur, egubakoitza, Hika antzerki taldeak *Arrautza delikatuak* antzezlanaren egingo du Jai Zalen, 23:00etan. AEDk eta Kultur Errotak antolatuko dute.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Herri autobusa jartzea aztertu zuten

Hiriburuetatik joan-etorria egingen zuten autobusak Musakola eta San Andresko geltokietan geratzen ez zirenez, Udaleko Zerbitzu batzordea aztertzen hasi zen arazoari zelan konponbidea eman. Horregatik, aztertzen hasi ziren Arrasaten herri autobusa jartzeko zer aukera zeuden.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Korredore"

— Frontoiko korredore bat il da infartuakin.



JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Gose musika taldea berbera izango dugu 107.7ko autobuseko asteleneko ibilbidean

Trikitia eta musika elektronikoa bateratzen duen taldea da Arrasaten sortu berri den Gose. Eskarmentu handiko musikariak ditugu talde bitxi horretan, Ines Osinagak (Ekon, Isarevolution...) eta Bad F-Line taldeko Iñaki Bengoa arrasatearrak eta Tadeos gasteizarrak osatzen dute-eta hirukote hori. Gaur, egubakoitza, Arrasateko 3.60 aretoan eskainiko dute euren lehenengo zuzeneko. Aurreratu dugun moduan, baina, astelenean, 11:00etan egin dugu hitzordua Gose taldeko abes-

lariarekin, Ines Osinagarekin, hain zuzen ere.

GUATEMALAKO EGOERA

Asteko gainbegiratu-n, ohi dugun moduan, astean izan dugunaren laburpena eskainiko dizuegu. Elkarrizketa bilduma horretan, besteak beste, Guatemalara hurbilduko gara. Han bizi den Iñaki Gonzalez aretxabaletarrak hango azken berriak emango dizkigu. Eta datorren astean Guatemalako bidea hartuko duen Amaia Goitia oñatiarrak, dituen asmoak.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
Guatemalako egoera, Iñaki Gonzalez eta Amaia Goitia; Lorategia geltokian, azaleak berbera; Mingaina Dantzan geltokian, Oier Sarasua musikaria...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
10:00-12:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa), Elkarrizketak.
Meteorologiaren geltokia.
Ibili munduan geltokia.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 17:15 **Zorion agurren tartea** (errep.)


KALEINKESTA/ Badauketzu ohitturaik perretxikuek hartzera jueteko?



PEDRO IZURZA
Ikasle



JESUS IZKUE
Langillie



ANDONI MAGUNAZELAIA
Langillie



MARIA PILAR SAN MIGUEL
Langillie



NEREA MATA
Langillie



IDURRE AIERBE
Langabie

Ez. Ezauketan dot afiziño hori daukon jentie, baiñe neu ez naz jueten, eta denporaik be ez dauket, gaiñera. Hori bai, perretxikuek jateko orduen ez dauket inungo problemaik.

Mendire perretxikuek hartzera? Ez; gaiñera, ez dot perretxiko klasiek ezauketan. Oin, honguek edo bestelakuek jatera inbitetan nauenien, oso gustora jueten naz.

Ba ohittura haundirik ez dauket, egixe esateko. Gaztetan aittekin-eta jueten gitzen, baiñe oin ez. Gaiñera, oso perretxiko klase gutxi ezauketan dot, gibelurdiña eta besteren bat.

Ez dauket ohitturaik, baiñe noizien behin jueten gare perretxikotan. Gizonakin eta lagunekin jueten naz, eta guk perretxikuek ondo ezauketan ez badou be, lagunek bai.

Mendire jueteko ohitturie badauket, baiñe ez perretxikuek hartzera jueteko. Gaiñera, ez dot bat bera be ezauketan. Oin, jatera inbitau ezkerro, gustora asko juengo naz.

Inguruko jentie jueten da mendire, baiñe egixe esan biher badot, neu sekule be ez naz perretxikuek hartzera juen, gaztetan be ez. Oin, jateko orduen asko gustetan jat. (Barre)

USTEAKUSTE

Plazak bete

Domekan, Bertsolari Txapelketa Nagusiko final-erdia egingo dute Amaia Udal Antzokian. Final-erdietan sailkatzen direnek finala jokatu dute abenduan BECen. Seguruenik aurten ere finalerako sarrera guztiak salduko dituzte eta BEC erraldoia lepo beteko dute. Hori izugarria da, eta erakusten du bertsolaritza oraindik bizibizirik dagoela.

Hala ere, orainak geroa ere behar du eta honekin esan gura dudana da bertsolari gazteak eta erreleboa beharrezkoak direla. Euskal Herriko hainbat herrietan bertsolarien harrobi sendoak dituzte eta zaletasuna handia da. Arrasaten eta orokorrean gure ibarrean, txiki samarra. Halako txikia gaur egun ibarrean eta Andaluzia aldean bertsotan dabilen lagun talde txiki ausarta arduratuta dagoela. Baita 70eko hamarkadan lehenengo bertso eskolak sortu eta bultzatu zituzten Patxi Goikolea, Santi Iparragirre eta beste bateranoak ere.

Horregatik, Arrasaten AEDK eta gainontzeko herrietan beste euskara elkarteek ahalegin handia egin zuten joan den ikasturtean bertso eskolak sortzeko. Ikasle kopuru txikiarekin hasi ziren eta bertsotan egiten ikasi duenari aukera ematen jarraitzen dute eta gure tradizioan hain sustraituta egon den arte horri eusten diote.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK GARBITU BAKO KANTOIA Behin baino gehiagotan hainbat herritarrek aditzera eman digute herriko auzoak erdigunea baino aldi gutxiagotan garbitzen dutela, eta horregatik zikinagoa egoten direla. Aste honetan, berriz, erdigunean dagoen kantoia bat daukagu berbagai. Otalora eta Zarugalde kaleen artean dago, eta irakurle batek esan digu "nazka" ematen duela barrutik igarotzeak, "pixa usain handia izaten duelako eta zaborra ere egoten delako". Horregatik, Udalarari eskatzen dio ahalegin bat egin eta garbi izan dezala.

ASTEKODATUA

26

**UDALTZAIN DABILTZA
HERRIAN LANEAN**

Aspaldian Udala ahalegina egiten dabil Udaltzaingoa profesionalizatzeko. Eta horren bidean, hainbat ekimen egiten dabilta. Gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen dituzte, eta gaur egun 26 lagunek osatzen dute Udaltzaingoa lantaldea.

HERRITARRENBERBAK/ Ander Etxeberria



1839-2005

Zapaterok publikoki baietz esan zion estatutu katalan berriaren proposamenari, oraindik lehenengo urratsetan zeudenean. Aurrerago, aldaketa batzuk larregikoak iruditu zitzaizkion eta kontsensusa eskatu zuen: pentsatu zuen prozesua kontrolpean izango zuela bere alderdia estatutua berregiten ari ziren agenteen artean baitzegoen. Azkenean, PSCren atrebentziaz konturata, eta proposatzen ziren aldaketak oraindik ere handiegia zirela iritzita, beste baldintza bat atera zuen: 1978. urteko Espainiako Konstituzioa. Estatutu berriak, Madrilen onartua izatea nahi badu, ezin izango ditu aipatutako konstituzioaren mugak gaintitu, edo ez behintzat bere interpretazio baten mugak (interpretazio ezberdina baitaude).

Ez da berria espainiar nazionalismoaren (nolabait deitzearren) jokaera hori. I. Gerrate Karlistari amaiera eman zion hitzarmenarekin,

Bergaran sinatu zutena 1839ko abuztuan Maroto eta Esparterok, euskal foruak errespetatuko zirela uste zuten karlistek. Hala ere, ez zen hori gertatu. Urte hartako urriaren 25eko dekretuak honela zioen bere lehen artikuluan: "Se confirman los fueros de las provincias

Vascongadas y de Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía". Konfirmatu bai, baina *sin perjuicio* formularekin. Eta horrenbestez, subjektu politiko bakarra aitortuz (espainiar gorreak), hegoaldeko euskal

lurraldeen burujabetza foralaren deuseztatzea hasi zen.

Urteak pasatu badira ere, komunikabideetan agertzen diren adierazpenek, goian aipatutakoek eta beste batzuek, erakusten dute diskurtsoa lehengoa bezalakoa dela. Espero dezagun isilpeko harremanetan (bake prozesu bati ekiteko ezinbestekoak direnak) kontuak bestelakoak izatea gatazka historikoa soluzio bidean sartzeko.

"Zapateroren iritziz, estatutuak, Madrilen onartua izatea nahi badu, ezin izango ditu Konstituzioaren mugak gaintitu"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Añe Berezibar
Iratxe Bengoa

ARGAZKIAK
Mikel Lupiáñez

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Erretratuak erakusten du Gipuzkoako Birako etapek zer nolako arrakasta izan duten.

BESAIDE MENDI ELKARTEA

Gipuzkoako Birako azkeneko etapa egingo dute domekan

XABIER URTZELAI

Besaide Mendi Elkartekoei bi urte egin dituzte GR-121 izeneko mendi zeharkaldia egiten, Gipuzkoari itzulia ematen diona. Oraindik, baina, azkeneko etapa geratzen da, oraingo domekan egingo dutena. 09:00etan elkartuko dira, Garibain.

Oraingoan ez dira oso urrun joango, Udalatxi itzulia ematea izango da eta helburua. Hala, Arrasateetik Besaide aldera egingo dute, eta handik Santa Luziara; ibilaldia Sara jatetxean amaituko dute. Izan ere, mendi irteera egin eta gero bazkaria egingo dute jatetxe horretan. Eroso bazkaltzeko, Besaidekoek azpimarratu gura izan dute automobileren igoko dituztela motxilak jatetxera. Bazkalostean omenaldia egingo diote Gipuzkoako Birako etapen antolatzen ibili den Imanol Expositori. Gainera, hark esan digu dago-

eneko gertatzen dabilela Besaidekoen hurrengo erronka. Horrekin batera, datorren hilaren 30ean beteranoen urteroko irteera egingo du Gipuzkoako Mendi Federazioak, Ordizian. Eta, hara joateko datorren astelehenetik eguenera izango dira Besaiden izenak hartzen, 19:30etik 20:30era.

MENDIKO BIZIKLETA TALDEA

Hori ez da, baina, Besaideri dago-kionez berri bakarra. Azkenaldian mendiko bizikletan zenbat jende dabilen ikusita, Besaide-

koek arlo hori bultzatu gura izan dute, eta mendiko bizikleta taldea sortzeko lanetan dabilta. Oraindik goiz da ezer aurreratzeko, baina aurrerago izango dugu talde horren eta egingo dituzten irteeren berri.

ZALDIBARKO TXAPELKETA, GERTU

Zaldibar Txapelketako antolatuzaileak dagoeneko lanean dabilta 44. edizioa abian jartzeko. Izenematea urriaren 28an izango da, 18:00etatik 19:30ak arte, Montteronen. Eta ordaindu behar denaren gainean, antolatuzaileek esan digute joan den urtekoaren berdina izango dela. Txapelketan esku hartzeko talde bakoitzak 125 euro ordaindu beharko ditu, eta horri 75 euroko fidantza gehitu beharko zaio. Hori bai, joan den urtean fidantza galdu ez zuten taldeei itzuli egingo diete dirua.

Txapelketa, berriz, azaroaren 5ean hasiko dute. Informazio gehiago www.zaldibarkofutbito-txapelketa.com webgunean.

*Mondrak domekan
jokatuko du, eta
errugbikoek
deskantsua izango
dute asteburuan*

Bigarren astez jarraian, Mugarri Alkesa Iturripen

X.U.

Joan den asteko garaipena eskertzeko txalo zaparradarekin hartu beharko lukete ibarreko saskibaloi-zaleek Mugarri Alkesa. Zapatuan berriro jokatuko dute etxean, Valsay Ardoiren kontra.

Eta oraingoan, liderraren kontra jokatuko ez badute ere, argi kontrario horrekin. Zizur Nagusikoak (Nafarroa) Arrasatekoen atzetik datoz, norgehiagoka bat gutxiago irabazita. Hori bai,

Zurututzaren mutilek gorputzaldi ezin hobean daudela eta kategoriako kontrario gogorretakoa direla erakutsi berri dute; orain, Auto Escuela Alava, Padura eta Mugarri Alkesaren artean dago lidertza; oilar asko goialdean. Oraingo astean, gainera, Arrasateko taldearen kontrario zuzenak diren bi talde horiek elkarren kontra jokatuko dute, Gasteizen, eta norgehiagoka horrek sailkapena aldatuko du. Hala, Mugarri Alkesakoek aukera ezin hobea dute bihar txapelketan agintzen hasteko.



GOENKARA

Liderraren kontra zaleak jarlekutik altxatzea lortu zuten Mugarri Alkesakoek.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Pasaia - Mondra

Preferentea. Zapatuan, 17:00. Errenterian.

Anaitasuna - Mondra

Ohor. Gazteak. Zapatuan, 16:30. Txerloian.

Arrasate - Urki

Bigarren gazteak. Domekan, 12:00. Atxabalpen.

Arrasate - Zumaiako

Kadeteak. Zapatuan, 12:00. Atxabalpen.

Arrasate - Eibartarrak

Infantilak. Zapatuan, 10:00. Atxabalpen.

Mondra - Bergara

Emakumezkoak. Domekan, 10:00. Atxabalpen.

Arizmen. Arrasate - Arizmen. Aretxabalet.

Kadete neskek F8. Zapatuan, 11:00. Almenen.

Aretxabaleta - Arrasate

Alebinak. Domekan, 10:00. Ibarren.

ERRUGBIA

Arrasate - Elorrio

Seniorrak. Zapatuan, 16:00. Garagartzan.

SASKIBALOA

Mugarri Alkesa Arrasate - Valsay Ardoi Seniorrak. Zapatuan, 18:00. Iturripen.

At. San Sebastian - Mugarri Alkesa Arra. Juniorrak. Gaur, 19:30. Donostian.

Mugarri Alkesa Arrasate - Ordizia Kadeteak. Zapatuan, 10:00. Musakolan.

ESKUBALOA

Arrikruz Oñatiko Kobak - Ford Mugarri Lehen Territ. Domekan, 12:00. Zubikoan.

Arrasate - Tolosa

Bigarren Territ. Domekan, 12:00. Iturripen.

Arrasate - Aiala Zarautz

Gazteak neskek. Domekan, 10:15. Iturripen.

PILOTA

Arrasateko - Beloki Kadeteak Binaka. Gaur, 20:00. Uarkapen.

Arrasateko - Anaitasuna Gazteak. Buruz buru. Gaur, 20:00. Uarkapen.

Añorga - Arrasateko

Senior. Binaka. Gaur, 20:00. Añorgan.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erriebedun hizkiak



MODAYANG

Erropa, zapatak eta osagarriak

Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.

Labeaga 43.
Tel.: 943 53 48 68.
URRETXU.

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE



Argazkian, domekan arituko diren sei bertsolariak.

Domekan bertsolari txapelketako final-laurdenetako bat Amaian

KER BARANDIARAN

Abian da 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Dagoeneko hasi dira final-laurdenak jokatzeko, eta domekan Arrasaten dute hitzordua. Sei bertsolari esku hartuko dute Amaia Udal Antzokian, 17:00etan.

Finala abenduaren 18an egingo dute Barakaldoko Bilbao Exhibition Centerren. BECen, finalean, zeintzuek esku hartuko duten jakiteko hainbat norgehiagoka egin beharko dituzte aurretik. Dagoeneko hainbat final-laurden jokatu dituzte, eta Arrasaten ere lehia izango da asteburuan. Domekan, hilaren 23an, egingo

dute, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan. Bertsozale elkarteko bazkideek 5 euro ordaindu beharko dituzte; 16 urte baino gutxiago dutenek, 3 euro; eta gainontzekoek, 8 euro.

BERTSOLARI GAZTE BEZAIN FINAK

Domekan, Arrasaten arituko diren bertsolariak honako lanok egin beharko dituzte: binaka, gaia emanda, zortziko handian hiruna bertso; binaka, gaia emanda, zortziko txikian launa bertso; bakarka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian; binaka, gaia emanda, hamarreko txikian hiruna bertso; eta kartzelako lana, hau da, bakarka, gaia emanda, hiru bertso gura duten

doinu eta neurrian.

Sei bertsolari lehiatuko dira Amaia Udal Antzokian: 28 urteko Aitor Sarriegi beasaindarra, 30 urteko Estitxu Arotzena lesakarra, 27 urteko Nahikari Gabilondo zarauztarra, 32 urteko Arkaitz Goikoetxea oiartzuarra, 28 urteko Arkaitz Estiballes galdakoztarra eta 32 urteko Iñaki Zelaia heraniarra, hain zuzen ere. Sarriegik hirugarren txapelketa nagusia izango du aurtengoa. Aurreko bietan finalera heldu da; Arotzena laugarren aldiz joango da finalera; Gabilondo lehenengo aldiz doa; Goikoetxea hamargarren gelditu zen iaz; Estiballesen bigarrena da; eta Zelaiaren 3.a.

Gaur, egubakoitza, ekingo dio Zahar Berri ikasturteari

I.B.

Zahar Berri 1997an sortu zuten Udalak, AEK-k, Udal Euskaltegiak eta AEDk elkarlanean, Arrasate euskaldunagoa eraiki eta euskara ikasten dabiltzanei laguntzeko. Gaur, egubakoitza, elkartuko dira.

Gaur, egubakoitza, hasiko du ikasturtea Zahar Berri ekimean. Afari-merienda egingo dute AEDko tabernan, 20:00etan, berba taldea ezagutzeko eta bide batez ikasturterako plangintza txiki bat guztien artean egiteko. Horren ostean, AEDk eta Kultur Errotak antolatu duten ikuskizunera joango dira. Hika taldeak *Arrautza delikatuak* antzezlan egingo du Jai Zale tabernan, 23:00etan.

Zahar Berri hainbat lan egingo ditu ikasturtean. Batetik, berba lagunak osatzen ditu. Astean behin euskaldun berriek euskaraz lasai berba egiteko talde txoak dira. Euskaldun berriek euskaldun zahar batek lagunduko die euskaltegian ikasitako praktika dezaten.

Horrez gain, hiru astean behin berba taldea elkartzen da. Giro onean eta euskara aitzakia izanda, elkarrekin ekintzak egiten dituzte. Hain zuzen ere, orain arte, afariak, sagardotegi irteerak, mendi ibilaldiak eta beste-lakoak egin dituzte, eta kontzertuak eta antzezlanak ikustera joan dira.

Hortaz, euskara praktikatu, euskara bultzatu edo ondo pasatu gura duenak 943 77 12 28 telefonora deituta esku har dezake.



ZAHAR BERRI

Ikuskizunak ikusteaz gain, tailerrak eta mendi ibilaldiak (irudian) egiten dituzte.

Ipuina, poesia, bertso paperak eta komikiak, Arrasate Lehiaketetan

I.B.

AEDk XIX. Arrasate Lehiaketak antolatu ditu. Leintz eta Ugaran ibarretan bizi, lan edo ikasten duten 17 urtetik beherako lagunek esku hartu ahal izango dute alde batetik; eta Debagoien oso-ko edozein lagunek, bestetik.

Euskarazko lan orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu bakoak izan beharko dute. Eta ezingo da pertsona bera bi arlo baino gehiagotara aurkeztu.

OTSAILAREN 3A BAINO LEHEN

Lau arlo daude: bertso paperak, poesia, komikia eta ipuina. Inte-

resatuek 2006ko otsailaren 3a baino lehen bidali beharko dituzte lanak AEDra (Pablo Uranga 4 behea).

Epaimahaia AEDk aukeratu du, eta finalistek zerrenda apirilaren 7an emango dute aditzera. Behin betiko erabakia, berriz, apirilaren 27an.

LABUR

Domekan, XV. Perretxiko Lehiaketa egingo du Arizmendik, eta hiru sari banatuko dituzte

Aurten Arizmendik XV. Perretxiko Lehiaketa egingo du. Domekan izango da, hilaren 23an. Gaur, egubakoitza, DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleek irteera egingo dute; eta bihar, zapatua, LMHko ikasle batzuk gurasoekin joango dira perretxiko bila. Dena dela, ibarreko 10 eta 15 urte bitarteko edozein ikasle taldek esku har dezake, eta guztiei ogitarteko eta freskagarri bana emango diete. Domekan, 14:00etan, banatuko dituzte sariak. Espezie gehien batzeari eta kalitate onekoak izateari emango diote garrantzia.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711768

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

BOTEPRONTUEN

Jose Antonio Perez

LENIZ TAILERRA

XABIER URTZELAI

Jose Antonion esanetan, 1982xen hasi zien Leniz tailerrien lanien, baiñe lehenau be haren onduen egon zan beste taillertxo baten ibilli zien. Berak esaten dauen moduen, lan egitteko modu barrixetara moldaketie izen da gatzena.

Ze markakin egitten dozue lan?

Hamen Suzuki markako kotziek saltzen dou, baiñe lan egitteko orduen edozein markako kotziek eukitten dou taillerrien. Suzukixek saldute, ze modelokin geratuko zitzake?

Grand Vitara modeluekin. Konsumo txikiñe, karreteran ondo, mendixen be bai... Kotxe ona, azken baten.

Emuten dau, baiñe, kotxe bakotxa bere kontzesionarixuen konponketako egindde dauela.

Kontue da gaur egun ordenadorien bittartez lokalizetan diela aberixak nun dauzen, eta marka bakotxak bere ordenadorie eukitten dau. Baiñe geure taillerrien edozein markakin konpatibliek dien ordenadoriekin egitten dou lan.

Zelan egin aurre kontzesionarixoa haundixei?

Batetik, eurek daukien teknologixie geuk be eukitte, eta bestetik, geure lan ordue merkieu kobraute.

Zein da gehixen egitten dozuen lana?


Mekanika kontuek. Konponketak, olixo eta bestelakuen kanbixuek...

Kotziek ITVra eruen aurretik rebisetan dozue.

Bai, eta komeni da, gainera. Azken baten, horreik rebisiñuok gerueu eta zorrotzauek die, eta ondo etortzen da hara eruen aurretik rebisiño bat egittie, kotziek ITVie pasauko dauen edo ez jakitteko. 20 euro ingurugatik egitten dou hori.

Gatzagako portue onduen eukitte, lan haundixaue?

(Barre). Sasoi baten bai, ibillitte gauz ez aurrera eta ez atzera geratu dien kotziek jasoten. Oin,



"Lenizen Suzuki markie saltzen dou, baiñe taillerrien marka danekin egitten dou lan"

baiñe, seguro bakotxak gruie eukitten dau, eta geuk ez dou horrenbesteko lanik eukitten.

Zein da zeuon laneko gauza onena?

Ez dala lan monotonue, gauza diferentiek egitten douleko. Gaiñera, kotxe bakotxa diferentie da.

Eta txarrena?

Ba, nahiko lan zikiñe dala. Oin, baiñe, ez gare hasiko lanbidez kanbixetan, ezta?

Lana alde batera itxitte: zertan hobetu biherko leuke Debagoienak?

Transporte publikue bultzaketan ahalegiñe egin biherko leuke, herrixek ez dauz ondo konektaute.

Eta ze dauko ona?

"Tailerrera sartzen dan kotxe bat baiño gehixau eruengo neuke gustora etxera"

Debagoienak dana dauko ona. Ze falta jatzu zeuri?

Denpora librie.

Eta ze dauketzu sobran?

Ez dakit ba... Sobran eukitten dou ezer, ala?

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Uf! Ez dauket denporaik pelikulak eta holakuek ikusteko, ez dauket ohitturaik / Ez dakit ze esan, mekanikakoren bat edo... / Radixuen jarten dauena entzuten dot gustora.

Kapritxo bat?

Hona taillerrera sartzen dan kotxe bat baiño gehixau eruengo neuke gustora etxera, baiñe ez jaku holakuetarako aillegetan...

NIREBIDAIAHURA/ Jon Baltzategi

Norvegiara / 2005eko udan.

Norvegian gustukoen izan duen parajearen gainean galdetuz gero, Jonek argi eta garbi dauka: "Lofoten uharteak bezalakorik ez dago: "Birritan izan ginen han, hainbat egun pasatzen. Lehenengo aldian autoa alokatu genuen, eta bigarren aldian Zodiac-a eramatea lortu genuen. Hango ur-jauziak, amildegia, zelai berdeak, lasaitasuna... Akaso, leku ikusgarriagoak izango dira, baina Lofoten uharteek xarma berezia daukate. Norbait aholku eske etorriko balitzait, hara joateko esango nioke. Are eta gehiago, Lofoten uhartean zer bisitatu galdetuz gero ez nioke leku zehatzik esango, edozein herritara joan dadila, eta bide bazter guztietan gera dadila, dena da-eta ederra". Lofotenen gainean berbetan jarraitu du Jonek: "Erretratuak ateratzen ibiliz gero, gaitza da hango edertasuna irudi batean jasotzea. Hori bai, gaitzagoa da Lofotenen erretratu zatar bat ateratzea".

Bidaiaren bigarren zatian hegoaldera egin zuten Jonek eta Garik: "Andenesen utzi genuen Iñaki, eta Europarekin antz handiagoa duen Norvegiara egin genuen. Zazpi egun egin genituen Bergen eta Oslo bisitatzan, baina nire ustetan hanka sartu genuen, egun gehiago egin behar genituen Iñakirekin. Azken batean, ordura arte izandako pribilegioak iparraldean utzi genituen. Hegoaldean turista soilak ginen, eta edozer egiteko diru mordoia ordaindu behar genuen". Bergenen, Flam trenean ibili ziren: "Oso ondo dago, merezi du, harritzekoa da sasoi hartan zelako ingeniari lana egin zuten". Bergenen hiru egun egin eta Oslora abiatu ziren, hiriburura: "Gauz bidaiatzen genuen, bidaiak egiteaz gain ostatuan egun bat aurreratzen genuelako. Hiria ezagutu eta hainbat museo bisitatu genituen; besteak beste, bikingoen erregeen ontzia ikusi genuen. Ondo ibili ginen, baina ez Andenesen bezain ondo. Dena dela, sekulako oporraldia izan da".



"Hegoaldean ondo ibili ginen, baina ez Iñakirekin bezain ondo"

XABIER URTZELAI



Iñaki eta Jon, Lofotenera eraman zuten auto eta Zodiac-arekin.

MAYTE



Loradenda

Domusantu egunerako hilaren 19tik 28ra enkarguak jasoko dira.

Otalora 18 ARRASATE Tel.: 943 77 14 65


ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



NAHIKO LAN DU IGOTZEK ONDDO EDER HORRI EUSTEN!

Erretratu hori bidali digute Igotz Ojeda gaztetxoaren ingurukoek. Lehortea izan dela-eta, onddoak batzeko sasoi txarra dela esan dute batzuek, eta egia da inguruko basoetan ez dela bestetan besteko perretxikorik egon. Baina ikustekoa da Igotzek (beste norbaitek lagunduta) zelako onddoa hartu duen, eta handiagoa ere hartu zuten, baina ez omen zen erretratuan sartzen: "Onddo horrek 700 gramo pisatuko du, edo kilo!" Gainera, mezua bidali digunak esan digu izozkailuan gorde dituzten onddo guztiekin urtebeterako gutxienez badaukatela.



MONDRAREN ALDE EGITEAK BADU BERE SARIA; GALDETU ERRETRATUKOEI BESTELA

Mondra Futbol Taldeko jarraitzaile Txomin Urrutiak eta Jon Altzak dagoeneko merienda ederrak egin dituzte Arrasateko futbol taldeari esker. Horretarako, baina, herriko hainbat tabernatan dauden Mondraren aldeko txartelak erosi behar izan dituzte. Ziorla tabernan banatu zuten sarietako bat, Txominek irabazi zuena. Jon Altzak, berriz, Oriokoren kontrako

partiduan erosi zuen txartela, eta atsedendian jaso zuen berri pozgarria. Mondrak irabazi (2-0), eta otarre ederrarekin etxera. Ez dira izango, baina, denboraldiko otarre bakarrak; horrenbestez, taldeari laguntzarekin batera, etxerako produktu horiek gura dituenak badaki: tabernetan dituzue txartel horiek, edo Atxabalpe futbol zelaian bestela. Aukeran, hobe animatzera joatea.



ARRASATEKO KARATE TALDEKOEK LAN TXUKUNA AZKOITIKO KARATE TXAPELKETAN

Joan den domekan egin zuten txapelketa, eta Gipuzkoako talde onenek hartu zuten esku. Eta, talde horien artean Arrasateko ordezkariak izan ziren, Saioa Karate Elkartekoak, hain zuzen. Parte-hartzearekin konformatu ez, eta lan txukuna eginda hainbat domina ekarri zituzten handik. Nesken kategorian, Zahara Galan izan zen 14-17 urte bitartekoen artean onena; Ainarak eta Estitxuk

ere lan bikaina egin zuten. Mutiletan, Eneko Ruizek saio ederra egin zuen, eta hirugarrena izan zen lehia handiko kategorian. Jon Rodriguez eta Carlos Sanchez, baina, ez ziren atzean geratu: Jon lehena izan zen kumite mailako 70 kilotik gorako kategorian, eta Carlos bigarrena izan zen 70 kilotik beherakoan. Eta azkenik, Joseba eta Omar ederto moldatu ziren euren lehenengo txapelketan.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Joan den urtean ere erretiratu ugari joan ziren Nagusi azokara gauzak ikusi eta esku hartzera.

NAGUSI

ERRETIRATUAK/ Adinduen gaineko azokak eta jardunaldiak

Erretiratuendako Nagusi azoka erraldoia egin dute Barakaldon

IKER BARANDIARAN

Gero eta jakinagoa da erretiratuak egungo gizateriaren portzentaje handia direla. Hortaz, gero eta zerbitzu eta negozio daude giza talde horri eskainita. Egin berri duten Nagusi azoka erraldoia horren adibide bat besterik ez da.

Gero eta erretiratu gehiago daude I. Mundua deitzen diotena osatzen duten herrialdeetan. Medikuntzaren garapenak eta beste eragile batzuek bizitza itxaropen handiagoa izaten lagundu dute, erabat.

Gero eta zerbitzu eta enpresetako arduradun gehiagok dakite erretiratuak bezero potentzial garrantzitsuak direla. Arrazoi horregatik, bezero horiek gero eta gehiago zaintzen dituzte, eta hainbat eskaintza berezi egiten dizkiete.

Bestalde, hainbat erakunde eta alderdi politiko ere giza talde horren tamainaz jabetuta,

saiatzen dira horiei jaramon handiagoa egiten.

Horiek guztiak batu ziren Nagusi azoka erraldoiaren bederatzigarren edizioan. Bilbao Exhibition Centerren egin zuten eta arlo askotako standak jarri zituzten: kirolak, brikolajea, zaletasunak, jokoak, jolasak, ikusizunak, musika, turismoa...

Horrez gain, hirugarren adinekoen alorrean lan egiten duten hainbat elkarterek ere aditzera eman zituzten eskaintzen dituzten zerbitzuak: adinduen zaintza, medikuntza alternatiboak, etxez etxeko laguntza, boluntarioak... Erretiratuak asko dira, baina lan handia egiteko gaitasuna ere badutela erakutsi zuten.

Gibraltarren, jardunaldiak

Bestalde, Gibraltarren, hirugarren adinekoekin lotutako beste mota bateko jardunaldiak egin dituzte azken egunotan. Han hirugarren adineko lagunei zelan lagundu eta zerbitzu onagoa eman aztertu zuten. Hori guztia psikologo, erizain, mediku eta zaintzaileen ikuspegitik landu zuten, batez ere. Guztira, 140 profesional batu ziren, eta horiez gain, ikasketak bukatzen dabiltzan hainbat lagunek ere esku hartu zuten.

Aztergai izan zituzten gai nagusien artean, honako hauek nabarmendu zituzten: zaintza, boluntarioak, tratu txarrak, depresioa, etxez etxeko laguntza eta medizina hartzearen gaineko kontrola, besteak beste.

LABUR

Dagoeneko sortu dute Arrasateko Abesbatza eta abenduaren 20an lehiatuko dira Amaian

Erretiratuak abesbatza hasi da lehenengo entseguak egiten. Zuzendaria Goio Ezkibel izango da; David Artzamendi teklatuaz arduratuko da; eta Francisco Nafarrate, ahots solista. Dagoeneko aurreratu dizkigute abenduaren 20an Amaia Udal Antzokian abestuko dituzten lau kantak: *Gabon abestia argi berria*, *L'Ampordá*, *Mesias sarritan agindu izana* eta *Fé y esperanza*. Beste hamahiru talderekin lehiatuko dira, horien artean Oñati eta Bergarako erretiratuak abesbatzak.

Abaroako lagunak eguaztenean Iratxera joango dira, eta azaroan Elizondora

Eguaztenean, hilaren 26an, Abaroa erretiratuak elkartereko lagunak Iratxera joango dira. 168 lagun joango dira, eta badaezpada beste 15 lagun erreserban daude. Iratxeren hamarretakoa egin ondoren, Mendabiara joango dira hango kontserba-enpresa bat, eliza eta herria ikustera. Horren ostean, Iratxera bueltatuko dira, izen bereko hotelean bazkaltzeko. Dantzaldia eta bingoa ere izango dituzte. Bestalde, azaroaren 17an Elizondora txangoa egingo dute, eta dagoeneko hasi dira horren prestakuntza lanak egiten.



Bi arrasatear, Gipuzkoako txapelketan

Atzo, eguna, jokatzekoa zen Gipuzkoako erretiratuak gastronomi txapelketa Donostiako Altxa auzoan, Altxatarra elkarterean hain zuten. Debagoieneko ordezkariak Uribarri erretiratuak elkartereko Sabina Altuna eta Felix Aiausti izan ziren. Guztira, zortzi bikote lehiatu beharko ziren eta bakailaoa pil-pil erara sukaldatu beharko zuten.

Altunak eta Aiausti maila oso handia dute, eta Debagoieneko erretiratuak uste dute saria ibarrera ekarriko dutela. //B.



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

BELEN MAIZTEGI



- Teleordainketa
- Domusantu egunerako enkarguak hartzen dira

Biteri etorbidea 13 - ARRASATE

Tel.: 943 08 15 44

LORAK



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@euskalnet.net

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behe
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

BITART

Larraitz Ugarte Maider Morras

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

EZETZASMATU



MIKEL LUPIANEZ

Non dago argazkian ikusten duzuen hori?
Arrastoa: plaza hori harresi batekin estalita egon da, orain dela urte gutxira arte.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

Scottex komuneko papera
12 erroilu+4 doan

2,90€ 483 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIA ARANArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria!
Galderen erantzun zuzena:
Biteri etorbidea.

ARRASATEKOHISTORIA

Arantzazuko basilikako berrikuntza lanak (II)

'LA NUEVA BASILICA DE ARANTZAZU'

Arantzazuko berrikuntza lanen gaineko bigarren kapituluan, behin betiko lanak hasi ziren arteko gertaerak jaso ditugu:
"Obrek 1924 edo 1925era arte segitu zuten; orduan behin-behinerako gelditu egin zituzten eta 1929an behin betiko. Itxura denez, zoritxarrak eraginda, On Pablo diru barik geratu zen. Edozelan ere, ongile ospetsuak jarraitu zuen tematuta proiektu ikaragarri hura egitearekin eta fraideek agindu zioten ez zutela onartuko "bestelako pertsonen esku-sartzerik" ezta ere "proiektuan aldatzarik". Baina patua errukigabea izan zen". 1927rako On Pablok 521.000 pezeta gastatuta zituen Ama Birjinaren ganbaratxoarendako. Eta ezin izan zituen lanak gauzatu. Historiako gertaerek (Primo de Riveraren diktadura, Errepublikaren proklamazioa, altxamendu militarra, Espainiako Gerra, gerraostea, Bigarren Mundu Gerra...) ezinezko egin zuten On Pabloren asmoak betezea. Hori bai, "erdi eraikita zeuden arkuak eta paretak ezin ziren ahaztu". Eta hala, proiektua berrartzeko aukera hobearen zain geratu ziren.



1943an ospatu zuten Arantzazuko Ama Birjina Gipuzkoako zaindari izendatu zuteneko 25. urteurrena.

'LA NUEVA BASILICA DE ARANTZAZU'

1942an iritsi zen aukera hori. Arantzazuko Ama Birjina Gipuzkoako zaindari izendatu zuteneko (1918) 25. urteurreneko ospakizunen artean, Arantzazuko Santutegiaren eta Basilikaren obrak bukatzeko asmoa berrartu zuten. "1942ko otsailaren 2an, jubileua

1942an hasi ziren berriro Arantzazuko Santutegiaren lanen jarraipena bultzatzen

baino urtebete lehenago, Diputazioko batzar batean antolatu zuten Arantzazuko Santutegia berri eta handitzeko obren jarraipena ziurtatuko zuten Gipuzkoako Junta Probintziala". Edozelan ere, lanek geldi segitu zuten, "egoera egokia dela ikusi arte".

Era berean, lanok egin ahal izateko laguntza eskaera egin zioten Gipuzkoa osoari: (...) "Ama Birjinaren seme-alabok ezin dugu onartu utzikeria hori. Bada ordua probintziak Ama Birjinaren mesedetara ipin ditzan bere ekin-tzak eta nekeak". Geroago, Obren batzordeak onartu egin zuen Kortazar, Irizar, Baroja eta Lizaur arkitekto gipuzkoarrek egin zuten proiektua; baina ez zuten erakutsi Bigarren Mundu Gerra bukatu zen arte, 1946ra arte. Hala, urtarrilean, Gipuzkoako "Udal katolikoei" dirulaguntza eskatu zien Obren batzordeak (lau milioi pezetako aurrekontua zuten). Eta batu ere batu zuten zerbait. Kontuak kontu, lanek geldi segitu zuten. Bien bitartean, Arantzazuk geroago eta jende gehiago erakartzen zuen. 1946an hasi ziren mezak irratiz ematen. 1945ean, Arantzazuko aldizkaria hasi zen artikulak euskaraz argitaratzen eta 1947an hasi ziren argitaratzen Arantzazuko Ama Birjinaren Egitentzia. Horrekin batera, Gazteen Seminarioak Euskal Herri osoko umeak hartzen zituen, eta oro har, Arantzazuko fraideak oso ezagun egin ziren. Testuinguru hartan, bi urte geroago, Pablo Lete frantziskotarren Ministro Probintzialak gauzatu zuen lanen hasiera.

igo autobusera



**Astelehenetik
egubakoitzera**

10:00etatik aurrera

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irratian

Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 21a

398. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Hiruatzxen hurrengo proiektua: oilaskoak hazi eta Ekuatore Ginea osoan saltzea

MIRARI ALTUBE

Ekuatore Ginea (Afrika) hautatu du Hiruatzek hurrengo proiektua egiteko. Mundukiderekin batera egingo du lan eta herrialde osoan saltzeko beste oilasko haztea du helburu. Bi urtean 120.000 euro batu gura dituzte horretarako, Udalaren eta herritarren laguntzarekin.

Pobreziaren Nazioarteko Eguna pasatu da astean, urriaren 17an hain zuzen, eta Aretxabaletako Hirugarren Munduko taldeak, Hiruatzek, esku artean darabilen proiektua aurkeztu zuen atzo, urriak 20, herritarren aurrean. Ekuatore Ginean (Afrika) izango da, eta oilaskoak hazi eta saltzea du helburu.

OILATEGIAK ETA LANTEGIAK

Nekazaritza eta abeltzaintzako garapen egitasmoa Ekuatore Gineako Evinayong eskualdean egingo dute, Mitemelete herrian. Kooperatibak osatuko dituzte oilategiak eraiki eta oiloak hazteko gero; oilo batzuk ugaltzeko erabiliko dituzte eta beste batzuk jateko. Horrekin batera pentsua ekoizteko lantegiak eta oilasko hiltzeak jarriko dituzte abian. Oilaskoa da Ekuatore Ginean gehien jaten duten okela, eta egitasmo osoa abian jarritakoan hilean 30 mila oilasko ekoiztea dute helburu, hau da, herrialde osora banatzeko beste. Hain zuzen, uztailean gure artean izan genuen Mitemelete herrian proiektuaren ardura izango duen Cecilia Obono.

120 MILA EURO BI URTEAN

Proiektua Mundukiderekin batera eroango dute aurrera eta beste elkarte batzuen laguntzarekin. Guztira ia 700 mila euroko aurrekontua dauka. Hala ere, Hiruatzek bi urteko konpromisoa hartu du eta tarte horretan 120 mila euro batu gura ditu. Aretxabaletako Udalak 60 mila euro emango dizkio eta herritarren laguntzarekin batuko dute gainerakoa. Bi kontu korrante zabaldu dituzte horretarako: Euskadiko Kutxan bata eta Gipuzkoako Kutxan bestea.



Ekuatore Gineako Mitemelete herriko ume zein nagusien bizi baldintzak asko aldatuko dira oilategien egitasmoa abian jartzen dutenean.

14 URTEKO IBILBIDEA

Orain dela 14 urte hasi zen lanean Hiruatz pobrezian bizi diren herrialdeekin. Ordutik hona hainbat proiektu jarri ditu abian, bai Afrikan, bai Asian, bai Hego Amerikan; azkena Ekuadorko Rukullakta elkarrean. Bi zatitan banatuta lau urteko proiektua izan da eta 196 mila euro batu dituzte he-

120 mila euro batu gura dituzte bi urtean, Udalaren eta herritarren artean erdi bana

rritarren artean. Dirua batu bakarrik ez, Ibon Antero Hiruatzeko kidea dago Ekuadorren kooperatibaren kudeaketa lanak zela egin erakusteko. Hil honetan bertan itzuliko da Ibon.

Hiruatzeko kideen esanetan milaka pertsonak bizipoza berreskuratu dute proiektu bakoitzarekin. Baina eurek bakarrik ez

dute jaso; gu geu ere pertsona osoagoak egiten garela diote gure talentuak baztertuekin banatuta. Bide batez, gure kontsumoa txikitu eta ume eta gazteak hezi egin ditugu elkartasun ereduak emanda. Ilusio berriarekin ekin dio Hiruatzek Ekuatore Gineako proiektuari, eta gura du aretxabaletarrek ere hala egin dezaten.

Herriko artisten jaialdia aretxabaletarrei laguntza eskatzeko

Orain dela urte batzuk atzeratuen alde dirua batzeko hasi ziren egiten herriko artisten jaialdiak. Orain Hiruatzek berreskuratu du ekimena, eta jaialdi bikaina eskaini zuen atzo, eguena, Basabeazpi gunean.

Eutsi biziari bakarriketa eskaini zuen Trilkimailu antzerki taldeko Beñat Zamalloak. Leizarra Musika

Eskolako trikitilariak, berriz, bikain girotu zuten batutakoan artean sortu zen giroa. Aretxabaleta Abesbatzak euskal abestiak eskaini zizkien bertaratutakoei eta Akordeoi Orkestrako kideek doinu dotoreekin eman zioten bukaera jaialdiari. Gustura egin zuten alde bertaratu ziren guztiek.



FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 22
ITURRALDE: Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 23
ITURRALDE: Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07

ARETXAGAZETA 943 79 86 21

Faxa 943 77 18 54

Rasotxo 943 77 09 81

Euskaltegia 943 79 21 68

Gizarte laguntzalea 943 71 18 62

Industrialdea 943 79 62 80

Institutua 943 79 79 00

Kinol etxea 943 71 26 28

Kultura etxea 943 71 10 27

Gazteria saila 943 71 10 27

Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49

Kurtzebarri BHI 943 79 57 40

KZGunea 934 79 94 44

Liburutegia 943 71 18 62

Loramendi EE 943 77 09 70

Ludoteka 943 79 05 81

Mankomunitatea 943 79 30 90

Murukxo ME 943 79 93 74

Musika Eskola 943 79 36 50

Osasun etxea 943 71 19 59

Oloro 943 71 24 06

Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42

Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77

Postetxea 943 79 28 31

Basabeazpil ikastola 943 71 21 18

Taxi geltokia 943 77 12 64

Udal Bulegoak 943 71 18 62

Udalzaingoa 943 71 18 63

Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak 112

Eskualde Ospitalea 943 03 53 00

Ertzaintza 943 79 71 99

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdia 943 46 11 11

Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA

Domeketan: 11:00, 12:00

Zapatuetan: 19:30

Hiletak: 19:00

SANTA RITA

Domeketan: 09:00

Zapatuetan: 18:30

Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO

Domeketan: 11:30.

MENDIOLA

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO

Domeketan: 12:30.

ELKARRIZKETA

JESUS MARI HERRASTI/PATXARAN LEHIAKETAKO IRABAZLEA

“Indurainen marka egiteko asmoa daukat, hau da, bost aldiz irabazi”

M.A.

Joan zen domekan egin zuten XI. Patxaran Lehiaketa, eta Jesus Mari Herrasti aretxabaletarren patxaranak jaso zuen lehengo saria. Azken bi urteotan aurkeztu da Jesus Mari lehiaketara eta bietan irabazi du.

Bi urtean aurkeztu eta bietan irabazi, ezta?

Bai, halaxe da. Egin aspalditik egiten dugu patxarana etxean, baina iaz arte sekula ez nintzen lehiaketara aurkeztu.

Zer osagai erabiltzen duzu?

Haranak, kafea, botila laurden bat kanela eta Errioxako anisa nahasten ditut.

Eta sekreturik baduzu?

Haranetan dago sekretua, izugarrizko diferentzia dagoelako haran mota batetik bestera. Mendian batzen ditut, altu samar. Ondo helduta egotea komeni da; helduta baina pasatu barik, bestela gustu txarra ematen diolako.

Botilan bertan ere ez dira sekula utzi behar luzaroan. Kolorea emandakoan kentzea da onena, haranak botilan edukita patxaranari ez diolako zapore biziagoa ematen, okerragoa baizik.

Haranak inguruan batzen dituzu?

Ez, hemengoak ez zaizkit gustatzen. Opakua aldera joaten naiz. Mendi ibilaldi baten ikasi nuen haran goxoak non zeuden, eta urtero joaten gara irailean batzera. Oso giro polita izaten dugu.

Zenbat litro egiten dituzu?

15 inguru. Iaz haran gutxi egon ziren eta gutxiago egin nuen, baina aurten 15 bat. Aurten, gainera, haran ona egon da.

Botilaren itxurak ere garrantzi handia du lehiaketan.

Bai, lehiaketako oinarrietan jartzen du beirak gardena izan behar duela, eta nirea oso polita zen. Bigarren geratu zen Jabi Irurek botila ilunean aurkeztu zuen eta nik uste horrexegatik geratu zela bigarren.

Martin Garairi barkame-na eskatu gura diozu...



M.A.

Bai, berandu joan nintzelako saria jasotzera. Realaren partidua ikusten egon nintzen eta berandutu egin zitzaidan. Iaz ere berandu agertu nintzen, baina datorren urtean, Realak irabazi edo galdu, garaiz azalduko naizela egiten diot zin.

Hortaz, datorren urtean ere irabazteko asmoa daukazu?

Bai, Indurainen marka egiteko asmoa daukat: bost aldiz irabazi.



Iralabarri plazan daude kultura etxea eta lokalak

Aldatu dute lekuz kultura etxea. Iralabarri plazako 13an dago, eta kultura etxean zeuden gainerako lokalek ere Iralabarri plazan daukate orain egoitza: Gazteria Sailak, Arlutz Xake Taldeak, eskulan eta pintura taldeek eta beste hainbatek. Hori bai, kultura etxeko telefono zenbakia lehengo da: 943 71 10 27.

Bestalde, udazkeneko ikastaroak antolatzen hasi dira, eta eskulan eta bainika ikastarotarako izena emateko kultura etxera joan behar da, 11:00etatik 13:00etara. / M.A.

LABUR

Ludotekarako lagun bat behar du Loramendi EEk

Aretxabaletako ludotekan lan egiteko lagun bat behar du Loramendi Euskara Elkarteak. 18 urtetik gora izan behar ditu, taldean lan egiteko erraztasuna eskatuko diote eta herriko berbeta ondo jakitea. EGA titulua eta Haur Hezkuntzarekin lotutako ikasketak izatea edo ikasten jardutea baloratuko dizkiote. Loramendi EEk, berriz, hiru orduko lan kontratua eta lan giro atsegina eskaintzen dizkio. Hori bai, bi urtetako konpromisoa eskatuko diote. Kurrikulumak bialtzeko azken eguna, urriak 27.



LURRINGEGIA OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28



Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Oier Sarasuari saria eman diote Sitgesko Zinema Jaialdian

M.A.

Premio Nova Autoria saileko musikaririk onenari dagokion saria jaso du Oier Sarasua aretxabaletarrak Sitgesko Nazioarteko Zinema Jaialdian. Maialen Sarasuak egindako *14 apostoles* dokumentaleko musika egin zuen Oierrek, eta saritu egin dute.

Saria heldu zaio Oier Sarasuari Sitgestik. SGAEk babestutako Premio Nova Autoria saileko musikaririk onenari dagokion saria, hain zuzen.

ERREGISTRO ASKO BATUTA

Oierren lehengusu Maialen Sarasua oriotarrak *14 apostoles* izeneko dokumentala aurkeztu zuen Sitgesko Nazioarteko Zinema Jaialdian. Orioko aitajaunaren bizitza ardatz hartuta euskal gizartearen atal baten dekadentziaren gainean egin zuen dokumentala. Musikaren ardura, oster, Oierri utzi zion: "Neure egin nuen dokumentaleko gaia, nahiz eta ikusi barik eduki konposatzeko orduan, eta sentimenduz betetako musika atera zitzaidan" dio Oierrek. Hala, erregistro asko batu zituen eta biolina,



ARTXIBOA

Esperientzia oso polita izan dela dio Oierrek eta hurrengoan ere gustura egingo duela.

gitarra, dijeridua eta baleen hotsak erabili zituen beste doinu eta hots batzuekin batera.

HURRENGORAKO ERE ZABALIK

Liken taldeko kidea da Oier, nahiz eta dokumentaleko konposizioa bakarrik egin. Liken taldeak jarri zion musika, hain zuzen, Jon

Sarasuak aurtengo Kilometro-tarako asmatutako berbei. Oso pozik dago Oier eta lehengusarekin egindakoa esperientzia benetan polita iruditu zaio: "Antzeko proiekturen bat helitzen bazait gustura hartuko dut parte hurrengoan ere; oso esperientzia polita izan da".

Otoitz pertsonala lantzen hasteko topaketak antolatu ditu parrokiak

M.A.

Hasi du ikasturtea Andre Mariaren Zeruratze parrokiak, eta otoitz pertsonala lantzeko ikastaroa antolatu du datoen hilabeteetarako. Urriaren 29an hasi eta zazpi jardunaldi egingo dituzte zapatu arratsaldeetan. Iaz ere egin zuten, baina aurten euskaraz izango dira.

Astebete da ikasturtea hasi zuela Donostiako Elizbarrutiak, eta Aretxabaletako parrokiak ere antolatu ditu ikasturterako

ekintzak, otoitz topaketak esaterako. Parrokiak kudeatzen dituen taldeak ere hasi dira dagoeneko lanean, katekesia eta nagusien taldeak beste batzuen artean.

OTOITZ TOPAKETAK EUSKARAZ

Otoitzaren inguruan iaz gazte-eraz egin zituzten topaketak aurtentzen euskaraz egingo dituzte. Urriaren 29an hasi eta zazpi zapatutan izango dira topaketak, 18:00etatik 19:30era bitartean. Otoitz pertsonala lantzen hasteko irizpideak emango dituzte, eta joan gura duenak izena eman

behar du aurrez: sakristian edo Herriko Plazan parrokiak duen bulegoan. Iazkoek izan zuten arrakasta ikusita oraingoan ere talde txoa osatzea gurako lukete antolatzaileek.

DOMEKAN, DOMUND

Domekan, urriak 23, Domund edo Misio-igandea ospatuko du Elizak. Aurtengo leloa *Misioa: ogi zatitua munduarentzat* da, eta aste bukaeran parrokia eta elizetan batuko duten diru guztia Hirugarren Munduko misioen alde izango da.

KIROLAK

Aitor Alcaide laugarren eta Fran Miguel seigarren Arrasate Hiriko Xake Torneoan

Joan zen egubakoitzean bukatu zuten Arrasate Hiriko Xake Torneoa eta ezustekoak izan ziren seigarren jardunaldian. Lehenengo postuan zegoen Fran Miguelek galdu egin zuen Miguel Navaroren aurka eta seigarren postuan geratu zen. Hain zuzen, Miguel Navarrok irabazi zuen torneo. Bestalde, Aitor Alcaidek Fran Ladronek Gebara zarauztarra hartu zuen mendean eta laugarren postuan geratu zen. Fran Gipuzkoako Txapelketa jokatzen hasi da.

Domekan etxean jokatutako partidurekin hasiko dute denboraldia alebinek

Domekan, urriak 23, hasiko dute denboraldia Aretxabaleta Kirol Elkartearen gazteentz, hau da, alebinek. Zortzi talde elkartuko dira Ibarra futbol zelaietan: 10:00etan, Bergarak Aloña Mendiren aurka jokatuko du, eta Mondrak UDAREN aurka; eta 11:15ean, Lagun Onak Elgoibar izango du aurrez aurre, eta Eibarrek Urko. Herritarren berotasuna eskertuko dute UDAREN mutiko hasiberriek.

Kirol etxeko kantxa erabiltzeko orduen zozketa egingo dute eguenean, urriak 27

Datorren egunean, urriak 27, 18:00etan egingo dute kirol etxeko kantxa erabili gura dutenendako orduen zozketa. Zozketa hori azaror, abendu eta urtarrileko orduak banatzeko izango da. Hortaz, frontoia edo kantxa erreserbatu gura duenak bilerara etorri eta bertan izango du aukera.



Igerian ikasteko umeen taldeak osatzen

Oraindik ez dute hasi umeen igeriketa ikastarorik kirol etxean ez dituztelako osatu. Hiru aukera daude: martitzen eta eguenean, 17:15etik 17:45era; martitzen eta egubakoitzetan, 17:45etik 18:15era; eta astelehen eta eguaztenean, 18:00etatik 18:30era. Aste bukaerako taldeak ere egingo dituzte. /M.A.

PAGALDAI

*Opari denda
Burrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otolora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Mobiliario ARENZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Zestoa
Preferentea.
Domeka, 16:30. Ibarra.
UDA/Arizm. - Amaika Bat
Lehen mailako gazteak.
Zapatua, 16:30 Ibarra.

PILOTA

Aretxab. - Bearzana
Bigarren mailako seniorrak.
Aretxab. - Bergara
Lehenengo mailako seniorrak.
Zapatua, 18:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA


UDA 1 Real Union 0
Preferentea.
UDA 6 Zestoa 0
Bigarren mailako erregionala.
UDA/Arizm. 2 Ostadar 3
Ohorezko gazteak.
Euskalduna 5 UDA/Arizm. 1
Lehen mailako gazteak.
Elgoibar 2 UDA/Arizm. 3
Lehen mailako kadeteak.
UDA/Arizm. 5 Ikasberri 1
Bigarren mailako kadeteak.

UDA/Arizm. 0 Tolosa 1
Ohorezko infantilak.
UDA/Arizm. 4 Salvatierra 0
Emakumezkoen liga (seniorrak).
UDA/Arizm. 1 Gasteiz Cup 12
Emakumezkoen liga (kadeteak).
Laskorain 3 UDA 1
Areto futbola.

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Usurbil 22-Aretxab. 9
Lehenengo mailako seniorrak.

ARETIBENTZIAEZPADA/ Arduraketan zau hegatzixen gripiek? Neurrik hartuko dozu aurre egittteko?



ANTONIA NAVARRO
Langillie



TOMAS FERNANDEZ
Langillie




GOIZANE MENDIZABAL
Langillie



MIKEL PARRA
Langillie



VANESSA GOMEZ
Langillie



VICENTE VICENTE
Langillie

Bai, horixe, asko ardura-
ketan nau. Baiñe ze neurri
hartu geike? Ez dakigu ezer,
ez mundik datorren ez nora
doien; hortan, ze egin? Gri-
pien bakunie aittketan
daue, baiñe balixo ete dau?

Bai. Arriskue baldin badau
oillaskorik ez janda... Edo
auskalo! Iguel behi eruen
antzeko fantasiaren bat da.
Aillegau ezkeru neurriek
hartu biherko dittugu; mo-
mentuz, ikusi egin biher.

Telebisiñuen ikusi dot, bai-
ñe trankil nau. Aillegetan
danien neurriek hartuko
dittuela pentsetan dot, eta
konfiantza dauket gure osa-
sunan arduradunek har-
tuko dittuen neurrietan.

Bai, horixe; pertsonen
artien pasau leikela pro-
bau ezkeru arazo larrixe
bihurtuko litzake. Gripien
aurkako txertue jartzeko
asmue dauket, momentuz
ez dau besteik eta.

Bai, asko. Egunkarixen ira-
kurri dot larrittute dabitze-
la adittuek, eta neu be larri-
ttu egin naue. Airien daue-
la esaten daue, eta ze egin
geike? Txertuek urten ezke-
ro jarri egingo dou.

Izugarri arduraketan nau.
Danok geixotu gehikien epi-
demia izan leike, eta tekni-
kuek lehebailehen konpon-
du biher daue. Ez dakit txer-
torik hartuko doten, baiñe
ez geixoketako bada bai.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ARKARAZOKO BIDEA KONPONTZEN Kostata baina ha-
si dira Arkarazo auzora doan errepidea konpontzen. Ekainean onar-
tu zuen Udalak konpontzea eta uztailean Amenabar enpresari eman
zion lanon ardura. Negua iritsi baino lehen egin gura zituzten kon-
ponketok, euriarekin lurra behera egiten duelako, eta larri ibili-
ko dira, bukatzeko bi hilabete beharko dituztelako./ M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

**Pausoka Haur
Eskolako
eraikin berria
inauguratuta**

Pausoka Haur Eskolak eraikin
berrian hasi zuen ikasturtea, eta
urriaren 19an egin zuten inaugu-
razio ekitaldia. Otalora kalean ze-
goen egoitzak ez zituen beharrez-
ko baldintzak betetzen eta Belo-
rrieta auzoan egin zuten berria.
Hiru solairu ditu eta bakoitzean
hainbat gela eta txoko.



ASTEKODATUA

5

**LAGUNEK GAINDITU DUTE
UDALTZAINEN AZTERKETA**

Udaltzain postua betetzeko 15 la-
gunek eman zuten izena abuz-
tuan. Joan zen egubakoitzean
egin zuten lehen azterketa eta 11
lagun agertu ziren. Horietatik
5ek gainditu zuten.

BESTEKEKESANA

“ Film laburren
ikastaroa antolatu du
Gazte Ekimenak. Lau
orduko saioak egingo
ditugu Sebastopoleko

Titiriteroekin, eta teorikoa eta
praktikoa izango da. Bukaeran,
gainera, laburmetraia filmatzeko eta
laburmetraiarekin geratzeko aukera
edukiko dugu.

BEÑAT ZAMALLOA
Arrasate Irratia/05-10-14

Gazteekin gertatzen ari dena, ondo
pasatzea eta gehiegizko kontsumoa-
ren artean egindako loturaren
ondorioa da. Helduok ematen dugun
eredua aztertu beharko genuke. Zein
ekintza eta eredu hezitzaile garatu
behar ditugun pentsatu beharko
genuke beraie heziketaz arduratzen
garenok.

ARANTZA ETXEBERRIA
'Asteleheneko Goienkaria'/05-10-17

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Udazkenien...

Udazken koloretan,
landen lurrinak
zeharkatuz kantua
datorkit gogora,
aurrera begira dazen hilabete
honek begiratuta. Kolore eta
lurrin ezberdinak ikusi eta
usainketako tartia edukiko
dogu.

Gaztiok pauso
bat emutera goiez,
eta horretarako
aukeria eskaini
gure dau sortzera
doian Gazte
Bilguneak. Espazio
honetan elkartuko
da Euskal Herriko
gazterixia. Hauze
izengo da
gazterixian berbia
eta erabakixia errespetetako
tresnia. Honek atzetik lan asko
dauko egiteko, eta momentu
honetan jaixo besterik ez da
egin; hortaz, osasun ona eduki
daixen danon mimo eta
atentziñuek falta egingo dutzo.
Animau gaitezen eta parte
hartu deigun danok etorriko
dien aurkezpen, eztabaida eta
saiuetan.

Azaroko hilabetien jarri
ezkeru geure begiradie, erdi
inguruan 18/98 sumarioko

epaiketak hasiko diela
aurreikusten da, eta bertan
hamaika herritar epaituko
dituzte. Hamendik animo
mordo bat bieldu gure dutziet
bertan egongo dienei.

Urteko azken hilabetia be
ez dator makala. Kulturaren
pertzia irakiten hasita dau, eta

makinatxo bat
liburu eta diska
egosten dabit. Urtero moduen zitia
ipinita dau
abenduko lelengo
astien Durango
aldera bueltatxo bat
emuteko, eta
produktuak ikusi,
esku artien ibili eta
erosteko.

Bukaketako, ezin aitatu
barik itxi aurtan jokatu dan
BECtsolari txapelketia. Poliki
poliki Lekunberriko geltokitik
urten zan trena badoia bere
bidia egiten, eta guk be
domekan aukeria edukiko
dogu tren horretan biagiaren
zati bat egiteko. BEC-en
ikusiko dou zein bururen
estalki izengo dan aurtengo
txapel baltza. Hori bai,
BECtsolari onenak eruen
daixela!

**“Gaztiok pauso bat
emutera goiez, eta
horretarako
aukeria eskaini
gure dau sortzera
doian Gazte
Bilguneak”**

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 21a / 227. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Autobidearen gaineko desadostasunak, osoko bilkuran

IKER BARANDIARAN

Martitzenean ezohiko osoko bilkura egin zuten udaletxean. Dorletako proiektua onartu zuten; Hezkuntzaren bi etxebizitza Udalak hartzeko prozedura abian jarri zuten; eta autobidea eta Bidegi izan zituzten eztabaidagai, desadostasunak dituztelako.

Dorleta auzoa eraberritzeko behin betiko proiektua onartu zuten. Bi aldaketa nagusi egin dizkiote lehenagoko proiektuari: etxeetako atarrietan ez dituzte arrapalak jarriko, atzealdetik sarbide egokia dute-

lako; eta bateriako aparkalekuak jarri beharrean, 45 gradukoak egingo dituzte.

Horrez gain, osoko bilkurak erabaki zuen San Pedro auzoan Hezkuntzak dituen lau etxeetatik bi Udalak hartzea. Horretarako prozedura abian jarri dute.

AUTOBIDEAREN GAINEKO MOZIOA

Orain arte, Autobidearen Jarraitpenerako Udal Batzordean dauden ados egon dira lan egiteko moduan, baina martitzenean hainbat desberdintasun azalera irten ziren. Astelehenean batzordeak egin zuen batzarrean autobidearen gaineko arazoarekin lotutako ida-

tzi bat osoko bilkuran aurkeztea erabaki zuten.

Eskoriatzako EAJk eta EAk astelehenean beste batzar bat egin zuten bi alderdi horien Gipuzkoako arduradunekin eta Bidegirekin. Bidegik aditzera eman zien prest dagoela alderdi politikoekin elkarrizketak egiteko, baina ez Udal batzordearekin, eta ezta Elizateetako ordezkari Javier Villarrek.

EAJk eta EAk aditzera eman zuten autobidearen gaineko idatzia osoko bilkuran onartzeak "kalte egingo liokeela prozesuari, eta hortaz kontra bozkatuko dugu. Garrantzitsuena negoziatzeko aukera izatea da, hori barik ez daukagu ezer". Ezker Batuak taldeak ere kontra bozkatu zuen. Euren esanetan, "une honetan Bidegirekin berriro ate bat zabalik dago, eta ez du merzei aukera hori gaitzea. Alegazioen alde borrokatuko dugu, eta batez ere, konpentsazioak jasotzearen alde".

EA eta EAJko ordezkariak azaldu zuten Bidegiri eskatu diotela Elizateetako Javier Villarrek ere batzarretan esku hartzea, eta Bidegik onartu egin duela.

ELIZATEETAKO VILLAR, HARRITUTA

Elizateetako ordezkari Javier Villarrek honako hau dio: "Harrituta gelditu naiz Nestor Aranek betoa ezarri gura duelako". Are gehiago, Villarrek azpimarratu zuen ez duela ulertzen "nolatan osoko bilkura ez zion babesa eman udal batzordeak egindako idatzari". "EAJ eta EAri galdetu diet alegazioen alde egingo duten, baina ez didate erantzun".



Domekan, Mendi Bizikleta Ibilaldia

Areka BTT elkarteak eta Udalak XVI. Mendi Bizikleta Ibilaldia egingo dute domekan. 09:30ean irtengo dira herriko plazaatik Aretxabaletarantz, baina interesatuek ordu erdi lehenago eman beharko dute izena. 38 kilometroko ibilaldia egingo dute. Baldintza bakarrak izango dira 14 urte baino gehiago izatea eta kaskoa erabiltzea. /I.B.



Hainbatek desadostasuna erakutsi zuten autobidearen gainean erabakitakoarekin.

LABUR

Umeendako filmak emango dituzte azarotik hasi eta Aste Santura bitartean, domeketan

Udalak aditzera eman du Aste Santura bitartean umeendako euskarazko filmak emango dituztela Ibarraundi museoa dagoen aretoan. Proiektzio horiek domeketan hamabostean behin egingo dituzte, eta lehena azaroaren 13an izango da. Emanaldiak 17:30ean izango dira, eta lehenetarikoa Harry Potter izango da.

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

Eskuratzeko modua:

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
 ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
 LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA

Deiaren prezioa: 0,90 + BEZA/ Abesti eta logoak (sms 1) Soinuak (2sms)

7505
zenbakira



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskuratu ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
 Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harrarazten. Alta ematean doan da eta 10 jatorria bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan alda eta GPRS sistemari alta ematea doan dira.
 * Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora.
 * Vodafone: deitu 123-ra. * Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzude, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin dituzteku abesti eta logoak. Webgure honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dazutela nahit baduzu, jarri gurekin harrarazten eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
 Eibar | EIBAR
 Athletic Club | BILBAO
 Osasuna | OSASUNA
 Real | REAL
Pop-Rock
 Aitormena | AITORMENA
 Aizkolar | AIZKO
 Amore amore | AMORE
 Bi Minutuetan | BIMINU
 Dub manifest | DUB
 Eguner | EGUNERO
 EH Sukarra | SUKAR
 Etsi den miera, nosotroz amen | ELLOS
 Etorritakoa | ETORKI
 Ezer ez da betiko | EZER
 Gora Herria | GORA

Hator Bel-Air | BELAIR
 Haizea | HAIZEA
 Hegal egiten | HEGAL
 Ikusi | IKUSI
 Ilergia | ILERGIA
 Inpermuen ate joko | INPER
 Jokin Urain Hitzak | JOKIN
 Kaixo | KAIXO
 Lau Teillatu | LAUTU
 Lazzana | LAZZANA
 Lotuta egon arren | LOTUTA
 Loreboa | LOREBOA
 Marea Gora | MAREA
 Musturrek sartunde | MUSTURREK
 Nicaragua | NICARAGUA
 No time for love | NOTIME
 Salve | SALVE
 Sarri Sarri | SARRI

Sorginen leizean | SORGINEN
 Txaxko | TXAXKO
 Txus | TXUS
Trikotxa
 Bexamela | BEXAMELA
 Bokespok | BOKESPOK
 Hik | HIK
 Itsas onzi baten | ITSAS
 Kupela | KUPELA
 Milla | MILLA
 Nirekin | NIREKIN
 Ny Hirahira | NY HIRAHIRA
 Txanpon baten truke | TXANPON
Folk
 Arratsalde honetan | SOROTAN
 Bai euskarari | BAI
 Bakezaleak | BAKEZALEAK
 Bizkaita | BIZKAITA

Eperrak | EPERRAK
 Euskal Herria | EUSKAL
 Euskaldun | EUSKALDUN
 Ez da posible | EZ DA POSIBILE
 Furra | FURRA
 Galiziar | GALIZIARRA
 Gernikako Arbol | GERNIKAKO ARBOL
 Haika | HAIKA
 Izarren hautsa | IZARREN
 Lepoan hartu | LEPOAN
 Mannelaren zai | MANNELAREN ZAI
 Nere herriko neska | NERE
 Non geratzen den denbora | NON
 Oti Ama Euskal Herria | OTI AMA
 Tirauki | TIRAUKI
 Txaxamatxalabau | TXAXAMATXALABAU
 Txoria | TXORIA
 Zaindu maite | ZAINDU

Herrikoia
 Bagare | BAGARE
 Desde Santurce a Bilbao | DESDE
 Ikusi Mendizaleak | IKUSI
 Pintxo-pintxo | PINTXO
 San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
 Artillero dale fuego | ARTILLERO
 Marijaita | MARIJAITA
 San Fermín | SAN FERMIN
 San Martzial | SAN MARTZIAL
SOINU ERREALAK (2 sms)
 Soinu izena | KODEA
 Irrintzia | IRRINTZIA
 Txalaparta | TXALAPARTA

JOKOAK (4 sms)

BOINK
 NEUTRON2
 RALLYDELUXE
 FUTVOLEY
 NOR
 SOBALL

Eskuratzeko modua:
 JOKUA: SOINUJ+hutsunea+KODEA
 7505 zenbakira
 Prezioa: 3,6 +BEZA

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Lanialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

ARETO FUTBOL PARTIDUA, ZAPATUAN

Bihar, zapatua, Eskoriatzako lehenengo mailako areto futbol taldeak norgehiagoka izango du Beti Arin taldearen kontra kiroldegian. 18:00etan izango da. Gaiantzeko taldeek kanpoan jokatu dute.

Benito Lertxundik zuzeneko diskoa aurkeztuko du abenduan

I.B.


Udalak orain dela urtebetetik dauka hitzartuta Benito Lertxundik abenduaren 2an kiroldegian egingo duen kontzertua. Musikari eta abeslari beterrano horrek 40 urtez ikasten egonak zuzeneko diskoa aurkeztuko du hainbat hiriburutan eta Eskoriatzan.

Abenduaren 2an, egubakoitza, kiroldegian egingo du emanaldia. 40 urtez ikasten egonak lana aurkezteko, oriotarrak hainbat kontzertu egingo ditu eta lehenetarikoa bat Eskoriatzan izango da.

ORAIN DELA 4 URTE ETORRI ZEN

Orain dela 4 urte, Lertxundik herriko kiroldegia lepo bete zuen eta bi orduko emanaldia egin zuen. Hala gogoratzen dute ikus-kikizuna ikusten han izan ziren ehunka lagunek.

40 urtez ikasten egonak diskoa martxoan grabatu zuen Gernikako Lizeo aretoan eta Tolosako Leidor antzokian. Elkar diskoetxeak kaleratu berri du. Diskoan honako musikariek esku hartu dute: Anjel Untzuk gitarra akustikoa, *bouzoki*-a eta perkusioak jo ditu; Fernando Ederrak, baxu elektrikoa; Gurutz Bikuñak, gitarra elektrikoa; Joxe Maria Iras-



Benito Lertxundik jarraitzaile asko ditu gure ibarrean.

tortzak, flauta eta txirula; Juan-txo Zeberio, pianoa; Kutxo Otxoak, biolina; Olatz Zugastik, harpa; eta Pello Ramirezek, biolontxelo eta akordeoia.

Diskoan hainbat sasoitako abestiak batu ditu, hemeretzi guttira. Aspaldikoak gehienak (*Baldorba, Udazken koloretan, Bizkaia maite...*) eta baita bi berri ere.

Eguenean ipuin kontaketa egingo du Gorringo taldeak bibliotekan, txikienentzat

I.B.

Eguenean, hilaren 27an, Gorringo taldeko lagunek Bernardo Atxagaren *Antonino Apreta* ipuina kontatuko dute bibliotekan, 18:00etan. 5 eta 9 urte bitarteko umeendako proposa da.

Gorringo taldeak eskarmentu handia dauka ikuskizunak egingen. Taldeak 10 bat urte darama eta *Kutsidazu bidea, Ixabel*

antzezlan ezagunaz gain, beste hainbat lan ere badituzte.

Eguenean, taldeko bi lagunek, Iñaki Agirrezabalek eta Egoitz Lasak, egingo dute ipuin kontaketa. Lasa izango da kontalaria, eta Agirrezabalek panpinak manipulatu ditu.

BERNARDO ATXAGAREN IPUINA

Gorringok Bernardo Atxagaren ipuina aukeratu zuen, "gaia interesgarria delako, mezua ona delako eta ondo idatzita dagoe-

lako", azaldu zigun Alkainek. Antonino zapatagilea da, eta lan egingen duen bitartean umeei ipuin bat kontatuko die. Bere atzean kokatutako beste lagun batek panpinekin kontakizuna irudikatuko du.

"*Antonino Apreta* formatu txikiko lana da, baina panpinen laguntzarekin saiatzen gara beste ukitu bat ematen. Laster urtebete beteko du ikuskizun horrek".

Anjel Alkainek azalduetakoren arabera, ipuin kontaketa hori

5 eta 9 urte bitarteko umeendako modukoa da. Gutxi gorabehera hiru ordu laurden irauten du ikuskizunak.

TALDEA OSO LANPETUTA DABIL

Gorringo atsedean hartu barik dabil. Une honetan ETBko *Wazemank* saioan buru-belarri dabil-tza, helduendako umorezko beste ikuskizun bat prestatzen hasi dira eta, horrez gain, Asteasun Ipuinaren parkea sortu dute, "Txikiparken alternatiba gisa".

LABUR

Iparagirre gose eta egarri greban, Marsellan

Marixol Iparagirreren senideek aditzera eman digute joan den egunean, hilaren 13an, preso eskoriatzarra Tolosako (Frantzia) presondegitik Marsellara eraman zutela, haren bikotekide Mikel Albizurekin batera. Frantziako Estatuko presondegien departamentuak Marixolen familiari ez zion ezer aditzera eman.

Joan den zapatutik, hilaren 15etik, Iparagirre gose eta egarri greban dago, presondegia horretako bizi baldintzak salatzeko. Hain zuzen ere, familiak aditzera eman duenez, Iparagirre Marsellara eraman zutenetik kartzelako hesia gehiago altxatu egin dute eta uneoro poliziak leiho alboan ditu mehatxuka. Iparagirreri bakarrik uzten diote egunean ordu erdiko gimnasia egiten.

Familiaren esanetan, Marsellako Les Baumettes kartzela oso egoera txarrean dago eta gainera Tolosakoa baino urrunago dago Euskal Herriatik. Baionatik 700 kilometrorara dagoela aditzera eman dute. Familiak uste du aldaketa horrekin Marixoli eta haren familiari eragozpen gehiago sortu gura dizkiola Frantziako Estatuak.

Euskararen normalizaziorako dirulaguntzak

Udaleko Euskara Sailak hainbat laguntza eskaintzen ditu herriko elkarte, merkataritza eta enpresa arloetan euskararen normalizaziorako.

Udalak hiru laguntza mota bereizten ditu: euskara hutsezko errotuluak jartzeko; irudi korporatiboa euskaraz jartzeko; eta euskarazko webguneak sortzeko.

Udalerrian izena emandako elkarteek, enpresek edo merkataritza zerbitzuek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntza horiek. Udalak 2005erako 450 euroko erreserba egin zuen laguntza horiek bideratzeko. Aurten bi eskari izan dituzte: bata, webgune bat egiteko eta bestea, irudi korporatibo bat sortzeko. Dirulaguntza bakoitza eskaria egin ahala tramitatuko dute, eta zehaztutako kopurua agortuko balitz, hurrengo urteko aurrekontuarekin egingo lirake beste eskarien kargu.

Interesatuak honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute: eskaera-orria elkarte edo enpresaren eta baita horren arduradun baten datuekin ere; zinpeko aitorpena; euskaraz jarritako elementuaren ale bat; eta gas-tuaren fakturaren kopia.

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA

DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko urriaren 21a / 168. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Herrian lau obra handi egiteko laguntza eskatu dio Udalak Plan Foralari

UBANE MADERA

Honako lau lan egiteko laguntza eskatu du Udalak: Zalgo eta Errotabarri auzoetako azpiegiturak berritzeko; Arriola auzoko azpiegiturak berritzeko; herriko argiteria publikoa handitzeko eta Bentamotz baserria edateko udaz hornitzeko.

Hain zuzen ere, aipatutako lan horiek guztiak egiteko, inbertsio handiak behar ditu Udalak, eta horregatik eskatu dio laguntza Plan Foralari.

Lan horiei dagozkien aurreproiektuak joan den astean aurkeztu zituen Udalak Plan Foralean, eta orain, Diputazioak erabaki beharko du dirulaguntzarik emango duen edo ez, eta laguntza ematekotan, zein obra egiteko emango duen laguntza hori.

BEHARRAK KOPURUTAN

Obra horien nondik norakoak zehatzago esanda, Zalgo eta Errotabarriko azpiegiturak berritzeko (ura, saneamendua...) 410.687,06ko inbertsioa egin beharra dago.



Besteak beste, herriko kale argiteria handitu nahi du Udalak; argazkian, Nardeaga kalea.

Arriolako azpiegiturendako, berriz, 417.372,26 euro behar dituzte. Horren harira, Udaleko Hirigintza batzordean ikusi dute Arriolak dituela orain behar handienak.

Herriko kale argiteria handitzeko asmoari dagokionez, lan horrek du aurrekonturik handiena: 777.886,84 euro kalkulatu dituzte. Argindar hariak lurpe-

ratzea eta zenbait puntutan (auzoetan, batez ere) argiteria handitzea nahi du Udalak.

Bukatzeo, Bentamotz baserria edateko urez hornitzeko

Herriko kale argiteria handitzeko, 777.886,84 euroko inbertsio behar du

sare berrirako eta hango ur-zikinak garbitzeko araztegia egiteko, berriz, 48.069,07 euroko inbertsioa egin beharko du.

ERABAKIAREN ZAIN

Beraz, lanok egin ahal izateko, Diputazioaren erabakiaren zain egon beharko du Udalak. Aditza eman digutenez, ezin dute zehaztu Diputazioak noiz hartuko duen erabakia, baina luze samar joko duela bai. Urtea bukatu baino lehen, behintzat, ez dutela erabakirik hartuko seguru dute Udalean.

Horrez gainera, Plan Foralak, laguntza moduan, obra egiteko aurrekontu osoaren %80 ematen du. Eta gainerako %20 Udalak ipini beharko duela ere adierazi digute.

Haurreskolarekin hitzarmena

U.M.

Datorren eguaztenean, osoko bilkura egingo du udalbatzarrik, 18:00etan hasita. Bestelako gaien artean, Haurreskola Partzuergoarekin hitzarmena sinatzea aztertu beharko dute, 3 urtetik beherako umeen hezkuntza kudeatzeko. Indarkeriaren kontrako manifestu bat ere landuko dute.

San Martin Eskolan 0 eta 3 urteko umeen hezkuntza zerbitzua ematen hasiko direla-eta landuko du Udalak Haurreskolarekin hitzarmena sinatzeko gaia. Hain

zuzen ere, gaztetxoenen hezkuntza kudeatuko luke partzuergoak, hitzarmena onartuz gero.

SAHARARAKO LAGUNTZA

Horrez gainera, Eudelek egindako dirulaguntza eskaera ere aztertuko dute eguazteneko batzarrean. Saharako kanpaleketan erai-ki berri duten ospitale bat hornitzen laguntzeko eskatu du Eudelek dirua.

Eta bestelakoan artean, azaroaren 25ean Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta, Emakundek bidalitako manifestu bat sinatu edo ez ere erabaki beharko dute zinegotziek.



3 urtetik beherako umeen hezkuntza kudeatuko du Partzuergoak.

LABUR

Zabola-Untzilla arteko errepidea konpontzeko

Udaletik jakinarazi digutenez, Diputazioak onartu egin du Zabola eta Untzilla auzoen arteko errepidea konpontzeko dirulaguntza ematea. Hain zuzen ere, aurrekontu osoaren %60a emango dio Udalarri. Hala, aurrekontua 87.250,44 eurokoa bada, 52.350,26 euro jasoko ditu Udalak.

Horrez gainera, esan digute dagoeneko bidali dutela Arabako Aldizkari Ofizialera lanok esleitzeko proiektua. Izan ere, Udalaren asmoa da urtea bukatu baino lehen hasiate konpontzea lanak egiten.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Schitzailleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30*
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ARAMAIO HOBETO EZAGUTZEKO IRTEERA, BIHAR
Aramaio be ezautu biekuo izenarekin, Orixol Mendi Elkarteak eta Aramaio Tropicaleko Gazte Asanbladak irteera antolatuko dute bihar goizearako. Plazatik 09:00etan atera eta Teilamendi, Izipitze eta Santikurtz Apaizaren Kobazuloa bisitatuko dituzte. Hamarretakoa kobazuloan egingo dutela jakinarazi dute, eta nork berea eraman beharko duela. Berez, antolatzaileen asmoa da bazkaltzeko etxera bueltatzea, nahiz eta bazkalordua apurtxo bat berandutu. Irteeran parte hartu nahi duenak plazan azaldu besterik ez du.

ARGAZKI LEHIAKETA
Datorren barikuan, hilaren 28an, bukatuko da Aramaio Udalak antolatutako argazki lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea.

BASERRIRAKO LAGUNTZAK
Azaroaren lehen bukatuko da nekazaritzako ustiapenak hobetzeko laguntzak eskatzeko epea. Gertuen dagoen Eskualdeko Nekazaritza Bulegora jo behar da.

Aramaioko Ibarreko Abade Jaun Agurgarrien Kofradiaren gainekoa

U.M.

Joan den irailean, Aramaioko Ibarreko Abade Jaun Agurgarrien Kofradiak batzarra egin zuen. 400 urte baino gehiago duen tradizio baten jarraipena da. Halako gutxi geratzen dira; hemen inguruan hiru. Horren gainean gehiago jakin guran, parrokoarengana jo dugu.


Emilio Perezek elizan hartu gaitu. Sakristian gertu zuen Aramaioko Ibarreko Abade Jaun Agurgarrien Kofradiaren liburu bat. Ikusgarria liburua, 1561ekoa, liburuan ipintzen duenez. Hantxe daude jasota, esaterako, kofradiakideek bete beharreko lehenengo arauak, eskuz idatzita, espainolez. 127 orri daude idatzita. "Gaur egun, oraindik ere, ezkontza araudia, herentziak, Lege Zaharrak... horren bidez egiten dira". Hala adierazi digu Emilio Perezek. "Liburu horretan dago ezarrita, esaterako, irailko Andre Mariaren osteko martitzenean elkartu egin behar dugula. Eta ipintzen du kantuan egin behar dugula *Agur Itsaz Izar* (...). Seguru asko Arabako beste kofradietan ere sasoi hartan horixe abestuko zuten".

Liburua Juan Perez de Urrutia eskribauak idatzitakoa da, Untzillako Urrutiako semeak. Horrez gainera, sasoi hartako kofradiakideen izenak ere bada-kartza: Pedro Martinez de Uribarri, Domingo Abad de Uribarren, Juan Otxoa de Likinano batxilerra, Antonio Abad de Uribarren eta Martin Abad de Olaeta batxilerra, esaterako.

Era berean, 1561etik 1912ra arteko datuak daude jasota liburuan, kofradiaren gainekoa. Edozelan ere, litekeena da lehenagoko liburu baten kopia izatea parrokiaren dagoen liburu hori.

KOFRADIAREN GAINEAN

Lehen esan dugun moduan, orain dela 400 bat urte sortu zuten Ara-



Argazkian Aramaioko parroko Emilio Perez, kofradiaren araudia eskuetan duela, elizako Sakristian.

maioiko Ibarreko Abade Jaun Agurgarrien Kofradia. "Historikoki Trentoko Kontzilioaren ostean sortu ziren halakoak. Hor bada-go Eliza eta elizgizonak zuzentzeko edo zintzotzeko desio handia. Baina hori ez da lortzen legez bakarrik, norberaren borondatez ere lortu behar da. Gogoan izan behar dugu kontzilioko aginduaz gainera, haren aurretik badagoela protestanteen aldetik halako bultzada bat zuzenago ibiltzeko; hortxe dugu Avilako Teresaren kasua (kontzilio aurrekoa); edo gure Loiolako Inazio... Bazetorren halako korrante handi bat. Eta dekretu horiek eman eta urtetara elizgizonak halako elkarte bereziak sortu zituzten. Gehienbat espiritualtasunari bidea emateko. Horrez gainera, seguru asko gorabehera praktikoak ere izango ziren kofradiak sortzeko. Adibidez, gure liburu honek zehazten du elkartzen direnek bizimodu

Eliza eta elizgizonak zuzentzeko edo zintzotzeko desioa bideratzeko sortu zuten kofradia

ona eraman behar dutela, nolabait eredugarria, ondo jantzita... Eta halako jokabide ona ez zutenei, isunak-eta ipintzen zizkieten". Halaber, Emilio Perezek kontatu digu kofradiakiden eginkizunen artean, hildakoen aldeko mezak eta otoitzak esatea zegoela: "Aberats bat hiltzen zenean, abade ugari izaten zen. Pobrea zenean, berriz, akaso bakarra. Hala, kofradian sartzen zirenek derrigor etorri behar zuten pobreengana, ezer ere eskatu barik".

ZEINTZUK DIREN KOFRADIEN KIDE

Aramaioko abadeak, Aramaion eta inguruan abade zerbitzuak egin dituztenak edo abade egiteko ordenazioren bat hartuta dutenak dira eta izan dira kofradiako kideak. "Horrez gainera, Aramaioko kofradiak zaindu egiten du Arabako abade euskaldunak izatea. Gure meza-eta zaintzen ditugu eta gotzaina etorri izan denean, geuri euskara hutsean egin digu sermoia. Batzuk benetan euskaltzale izan dira, adibidez, Serafin Azkazubi. Horixe da orain dela 100 urte Kixoteren zatitxo bat euskaratu zuena, Kixoteren III, mendeurrena ospatzeko. Eta beste euskaltzale asko ere badira hemen".

Halakoak eta askoz gehiago kontatu dizkigu Emilio Perez parrokoak. Aramaioko historia-ekin lotura zuzena duten gertaerak guztiak. Gehiago jakin edo ikusi nahi duenak, San Martin parrokiaren du aukera paregabea.

LABUR

Berriro ere hasiko dira barikuetan zinema emanaldiak egiten; lehenengoa, gaur

Edozelan ere, zenbait aldaketa izango dira zinema emanaldi horietan. Saioen antolatzaile Alex Aginagaldek zera zehaztu dio TXIRRITOLARI: "Pelikulak printzipioz barikuetan bakarrik izango dira. Eta asko jota ekitaldiak bi bariku jarraian izango dira". Gainerako saioak tartekatuta egingo ditu.

Hala, gaur, barikua, hasiko dira saio horiek egiten, 22:30ean, kultura etxean. *Million dollar baby* filma emango dute. Clint

Eastwood-ek zuzendutako drama da, 2005ekoa. 137 minutu irauten du. Besteak beste, Clint Eastwood berak, Hilary Swank, Morgan Freeman eta Jay Baruchel aktoreek parte hartzen dute film horretan. Bestalde, lau Oscar sari irabazi ditu *Million dollar baby*: film onena izatearren, Eastwood-i zuzendari onena izatearren eta Hilary Swank eta Morgan Freeman aktoreei. Urrezko Globo bi ere irabazi ditu film horrek.

Datorren eguaztenean, hilak 26, bi orduz argia kenduko dute ibar osoan egokitze lanengatik

Udaletik jakinarazi digutenez, 10:00etatik 12:00ak edo 13:00ak arte kenduko dute argia. Aurreko astean ez bezala, oraingo honetan ibar osoari eragingo dio etenaldiak.

Argia mozteko arrazoia honakoa da: argindarraren arloan lege xedapen berriak ezarri dituzte, hornikuntzaren kalitatearekin lotutakoak. Hala, xedapen horiek bete ahal izateko beharrezko ekipamendua ezarri behar dute datorren

eguaztenean, eta horretarako argindarra kendu beharra dago. Horrez gainera, jakinarazi digute argi kentze hori aprobetxatu egingo dutela bestelako lanak ere egiteko: "Esaterako, hornikuntzaren jarraitutasuna arriskuan ipintzen duten zuhaitzak bota egingo ditugu edo kimatu egingo ditugu". Halaber, bestelako berrikuntza lanak egiteko ere aprobetxatuko dutela esan digute udal teknikariek.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 21a / 24. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otorora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

ELKARRIZKETA

JOSE INAZIO BELOKI/PILOTA ENTRENATZAILEA

“Gure asmoa da taldetxoak sortu, eta lagunarteko partiduak jokatzea”

XABIER URTZELAI

Dagoeneko bi aste egin ditu Jose Inazio Belokik Gatzagako pilotari gazteak entrenatzen. Hura ere pilotan ibilitakoa da, eta baita entrenatzaile eta herriko txapelketak antolatzen ere. Martitzenean izan ginen Belokirekin.

Dagoeneko hainbat entrenamendu saio egin dituzue; zer moduz?

Gaurkoa hirugarren saioa izango da, eta gustura gabiltza. Guztira zazpi gazte animatu dira; 7 eta 12 urte bitartekoak. Egia da, baina, hasi baino ez garela egin.

Ze helbururekin hasi zarete?

Lehenengo helburua da herriko gaztetxo horiei pilotan egiten irakastea. Lehenago ere bazuten zaletasuna, askotan ibiltzen ziren eta pilotalekuan jokaten. Eta, kirol hori zelanbait dominatzerakoan Gatzagako taldea sortu gura genuke. Dagoeneko egin dut berba Eskoriatzako pilota taldekoekin, eta Arrasatekoak eta Aretxabaletakoak ere hor daude; pilota izango litzateke euren kontra lagunarteko partiduak antolatzeari, hori da asmoa.

Gurasoek eskertu egingo dute gazteek herrian kirola egiteko aukera izatea.

Bai. GURELekoek proposatu zidaten pilotaren kontua, eta nik baiezkua eman nien. Bistan dago Gatzagan zailtasunak daudela gainontzeko kirolak praktikatzeke, baina pilotalekua behintzat badaukagu.

Zelako entrenamendu saioak egiten dituzue?

Hasteko, hamar minutu inguru egiten dugu korrika, apurka-apurka berotzen joateko. Gero, hainbat talde egiten ditugu, guztiek adin bera ez daukatenez ezin dutelako batera jokatu; nagusiek askoz ere indar handiagoa daukate eta. Eta, lehenengo egunotan sakea ibili gara lantzen, eta baita pilotea ere.

Nondik datorkizu pilotara-



XABIER URTZELAI

“Lehenengo egunotan sakea landu dugu asko, eta pilotoan ere ibili gara”

ko zaletasuna?

Txiki-txikitatik. Ni Castañares auzoan jaio nintzen, eta gaztetan Eskoriatzan ibili nintzen jokaten. Orain errazagoa da gazteek pilotarako zaletasuna hartzea. Telebistan ikusten dituzte pilotariak, eta badakite jendeak kirol hori jarraitzen duela. Zaletasuna egiterako orduan horrek asko laguntzen du.

Gaur egungo gazteak, baina, lehengoak bezalakoak dira?

Argi dago gaur egungoek entrenamenduko gauza gehiago

“Hasi baino ez gara egin, baina gazte horiek lehenago ere bazuten pilotan egiteko zaletasuna”

dituztela, baina ez dut uste alde handirik dagoenik. Beste gauza batzuk egiteko aukera izanda ere, hauek pilotalekuan izaten ziren lehen ere.

Dagoeneko Lau t'erdiko txapelketa final-laurdenetan da, faboritorik?

Imajinatzen dut Xala, Martinez de Irujo eta horrelakoak iritsiko direla azken txanpara arte, eta pilotari onak dira, gainera. Baina niretako Aimar Olaizola da faborito; hura da, gaur egun, gaitasun gehien duen pilotaria.



Nairobitarra izeneko autobusa, horrenbeste urtean egindako bidaietako batean.

‘Milioi bat kilometro lur azalean’, Josu Iztuetaekin

X.U.

Josu Iztueta (Tolosa, 1957) izango da gaur (egubakoitza) arratsaldean Gatzagako Kultura Etxean (19:00). *Milioi bat kilometro lur azalean* izeneko lana erakutsiko die gatzagarrei eta hurbiltzen diren guztiei. Tolosarrak diapositiba emanaldiaren bitartez erakutsiko ditu azkeneko 20 urteotan egin dituen bidaiak. Josuk eman dizkigu azalpenak: “Gaz-

tetan furgoneta bat erosi genuen, eta konturatu ginen etxea gurekin eramanez gero merke bidaiatzeko aukera zegoela. Eta, orain dela 20 urte autobus bat hartu, prestatu, eta harekin hasi ginen bidaiatzen”. Autobus bat baino gehiago behar izan dute, baina, Ameriketara eta Afrikara egin dituzten bidaiak egiteko: “Azken 20 urte horien gaineko kontakizuna egingo dugu Gatzagako diapositiba emanaldian”.



Gatzagako pilota harrobia

Gazte horiek dira martitzenetan eta eguenetan pilotan entrenatzera joaten direnak. Beloki entrenatzailearen ondoan daude, ezkerretik eskumara Iker Barandiaran eta Enaitz Alvarez. Behean, berriz, ezkerretik eskumara Julen Alvarez, Asier Urtzar Aratz Oinederra eta Xabi Fernandez. Argazkian sei pilotari azaltzen badira ere, zazpigarrena falta da, Beñat Agirreurreta, hain zuzen. / X.U.

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA

UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa



Eguaztenetan 22:15ean, ZINEMA

16 MM: Euskal zinegileek eginiko film laburren saioa



URRIAK 26:

• **ETXERA** (9')

Elena Sierra

Sinopsia: Iker izeneko gazte diabetiko batek gose-greba hasiko du, eta horrek kezka eragingo dio bere amari.



AZAROAK 9:

• **LONG PLAY** (23')

Oihan Vega

Sinopsia: Diska denda bateko saltzaileak, dendako diska batekin erlazio obsesibo bat mantentzen du.



AZAROAK 2:

• **BASURDEA** (14')

Ane Mitxelena

Sinopsia: Bi arrantzale xumek basurde bat topatuko dute perretxikotan dabiltzala. Ezusteko horren ondorioz, amesgaizto batean sartuko dira, eta oso nekez ihes egin ahal izango dute.



AZAROAK 16:

• **TERMINAL** (12')

Aitzol Aramaio

Sinopsia: Autobus gidari batek uste du maiz ikusten zuen yonki bat hil egin dela. Orduan, damu izango da hari ez laguntzeaz. Baina, geroxeago, bizirik agertuko da...

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU



Etxeko konponketak

Elektrizitatea



ARANZABAL, S. COOP.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Maitena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

Metal aroztegia, P.V.C.
eta aroztegia
Lekuz aldatu gara!

Debagoiena industrialdean gaude, 11. pabilioian.
Tel.: 943 79 11 35 - Faxe: 943 77 31 20



Iturgintza • Berogailuak • Gasa • Bainugelak

Kale txiki 9 behea ARRASATE

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

Eraikuntzak

**Arrasate
eraikuntzak SL**

Meatzerreka auzoa 30

Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

Igeltserotza



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI S.L.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.

Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora